

VII. Arratia Raid-a jokatu da hilaren 27an eta orientazio proba 28an

10. orrialdea

Zeanuriko pelotariak txapeldun Bizkaiko Etorkizuneko Eskuzko Baque Txapelketan

Lau finalistatik hiru ziran Zeanurikoak. Maren Emaldik Kadete mailan eta Beñat Etxeitak Gazte mailan jantzi ebezan txapelak. 10. orrialdea



Lemoako Larregi taldearen Loreak desertuan diskoa kalean

13. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

304

2018ko urri bigarrenaren 17a
hamabostekaria
www.begitu.org

Eraiki prozesua martxan da



Billaroztarrak ebatziko dabe ze erabilera emon hamabi udal eraikin eta espaziori.

Lehenengo saioan, hilaren 17an, ikerketearen kontrastea eta ekarpenak egingo ditue eta beste hiru saio egongo dira Udalak emaitzen aurkezpena egin aurretik. Prozesuaren helburua da herritarren beharizanak ezetutea, lekuai erabilera emoterakoan kontuan izateko. 5. orrialdea

Auzitegi Nazionalera joko dau Igorrek goi-tensinoko linea dala-eta

Urri bigarrenaren 1eko Osoko Bilkuran, Red Electrica Españolaren (REE) Gueñes-Itsaso goi-tensinoko linearen proiektuari emondako Baimen Adiministratiboaren kontra agertuteko ebatzia hartu eban Igorrek Udalak, EH Bildu eta EAJ-PNVren botoakaz. Beinat Anzola alkateak uste dau proiektu guztia bertan behera geratutea zaila dan arren, Igorretik ez pasetako aukerak badagozala. Izan be, sai zuria eta beste hegazti nekrofagoen legedia beteteko, trazadua aldatu behar da. 5. orrialdea



Goi-tensinoko linearen kontrako konzentrazioa REEkoak Igorrera etorri ziranean.

ARRATIA

Emakumeen Mundu Martxa Arratiara be helduko da

Emakumeen Mundu Martxaren XI. Topaketea Bilbon izango da eta urri bigarrenaren 28an Arratian izango dira martxakoak, Arratiako mitologia ezetu eta andrakaz bazkalduteko. Egitaraua beteten bada, Dimako Indusin alkartuko dira ibilaldia egiteko eta Arteako plazan bazkalduko dabe.

Arratiak, Emakumeen Mundu Martxaren protokoloari jarraitzen deutso indarkeria matxistak Euskal Herrian bizi proiektua daukan andra bat hiltzen dauanean. 7. orrialdea

ARRATIA

Juan Barroetak Arratia pintau eban 1871n

1871 urtean Juan Barroeta margolariak Arratia agertzen dan hiru koadru pintau ebazan. Angel Larrea historialariak koadruok eta pintorearen bizitza eta sasoi aztertu ditu erdiko orrialdeetako artikuluan. Pintore bilbotarraren hiru akuarela dira; bik orduko Arte, Bidosola, erretratetan dabe, eta besteak Arantzazu.

Fama lortu eben sasoi haretako pintore askok erretratau eben Arratia euren koadruetan. "Barroetaren atzetik, hainbat artista etorri ziran Arratiara pintetan eta artelanak egiten. Arteatik be hasi ziran hamarkada bat beranduago beste margolari bilbotar batzuk (Anselmo Guinea eta Adolfo Guind) Arratiara etorten eta bailarako hainbat leku koadruetako irudi eta gai bihurtuten" dino Larreak. 8. eta 9. orrialdeak

publizitatea
94 631 73 14 eta 649 979 115



www.begitu.org

Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com

EMAKUMEEN MUNDU MARTXA ARRATIEN

Urriak 28

10:30tan Dimeko Indusi auzoan
HARRERA ETA KOBARA IBILBIDEA

14:30tan Arteako plazan
ANDRAN BAZKARIE

MARCHA DE LAS MUJERES EN ARRATIA, 23 de octubre

10:30 Recepción y visita a las cuevas en Indusi (Dime) // 14:30 Comida en Artea.



Literatura txokoa

REBELIONES Y REVELACIONES

Rebeliones y revelaciones izeneko lan hau Gioconda Belli idazle eta aktibista nikaraguarraren azken obrea da. Belli literatura feministan sano ezaguna egin zuen *La mujer habitada* lanari esker. Bada, *R&r* honek eusten deustso -baita sakondu be- autorearen ildo aldarrikatzaileari, andrazko izatearen aldeko aldarriari, hain zuzen. *R&r* testu antologia da, autobiografia, saio eta olerki antologiaren artean dagoana. Hitzazurea Laura Mintegirena da. Bertan, autoreak, besteak beste, kazeta lanak, berbaldien laburpenak, narrazio txatalak eta olerkiak batzean dauz. Hain itxura kaleidoskopikoa daukan honek, oster, andrazko izatearen introspektzio sakona eskaintzen deusku. Horre-

tan, autorearen begiradea ez doa kanpora, bere baitara baino, bere barrua arakutzen dau izate horren alderdiak ageri itxi guran. Bellirena jabetze prozesu baten bidaia antzekoa da, aktibista iraultzaile feministarena, Somozaren sasoiaren Nikaraguako FSNLgaz bat egin ebanetik, zelaz ondoren gobernu sandinistegaz apurtu eban, gaur egun adierazpen askatasunaren aldeko lan tinkoa egin arte. Eta hori guztia andrazko izatearen ikuspegitik, historian, bere historian, andrak zigortu izan dabezan indarrak agerian itxita. Holan, Bellik Ameriketako konkistaz, kolonizazioaz, inperialismoaz, deskulturalizazioaz, post-kolonialismoaz eta gaur egungo globalizazioaz berba egiten deusku. Horretaz,

eta batez be horrek guztiak andrai ekarritako erasoez. Bellirena, baina, ez da aldarrikapen panfletario hutsa, bizi izandako esperientzietan oinarritzen da-eta. Bere begiradea gozoa bezain tinkoa da, idazkera erraza eta adierazkorra proposatzen deusku, ia didaktikoa. Horretan autoreak argi ixten dau idazlea dala, literatura egiten daua. Bere lan literarioaren gaineko eten bako hausnarketea egiten dau Bellik. Hori eta gehiago eskaintzen dau liburu honek. Liburu ezinbestekoa, inondik be, gaur egungo mobimentu feministaren aldarri nagusiak ulertu eta androk, andra izate hutsagaitik, jasaten doguzan erasoer nondik norakoaz jabetzeko; eta bide batez, gizonentzako dei ozena, eurak be matxismoaren gaineko gogoe-ta behingoz egiteko.

Ane Rilo Gonzalez



Gioconda Belli

Rebeliones y revelaciones

Txalaparta argitaletxea, 2018

235 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Urri bigarrenaren 15etik 21era

N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18

22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.

Urri bigarrenaren 22tik 28ra

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7

Tel.: 94 631 73 11

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

Urri bi. 29tik zementziaren 4ra

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1

Tel.: 94 673 93 95 eta 609 402 908

22:00etatik 09:00etara

Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.

Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara

Zoco Robles Miren Nekane. Urbi 15. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 38 50 14

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Euskotren

902 543 210

Areatzako Notarioratza

94 673 92 26

Bizkaibus 94 612 55 55

Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik

22:30etara 30 minuturo, azkenengoa

22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30

minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

Otxandiotik urtekerak: Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo

(Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri

(Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan:

Zeberiotik: 7:00, 08:20, 09:10*, 11:00, 11:45*,

14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

* Basauriraino (Ariz) heltzean da.

Gainontzekoak Ugaoraino. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 8:40, 10:20, 11:20, 14:30, 16:30,

19:40.

Basauritik (Ariz): 10:00, 19:20. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

Artea-Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan: 6:50, 8:00*, 14:00,

16:00.

* Igorretik urtetan da bost minutu lehenago.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio-Artea

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 7:20*, 13:05, 15:30, 20:40.

Basauritik (Ariz): 12:45.

* Igorreko Instituturaino heltzean dira.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ermitabarri-Arrigorriaga

Jaiegunetan: 8:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriaga-Ermitabarri

Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan

dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandioarrik ez dago.

Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

Webgunea: www.begitu.org

Zuzendaria: Iñigo Iruarizaga.

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Erredakzino taldea: Illart Gumuzio, Angel Larrea eta Alvaro Rabelli.

Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga.

Publizidatea: Iñigo Iruarizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Goizalde Badiola (Arantzazu, Artea eta Ubide), Ibai Milkua (Areatza), Unai Agorreta eta Xabier Beitia (Bedia eta Lemoa), Amaia Uriarte (Dima), Oriol Fernandez eta Iker Perez (Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Berbizkunde Arroita (Zeberio).

Tiradea: 7.300 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.



Babesleak:



Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskeronak, hausnarketak, burutazioak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratutako derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak:
begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu behar dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Artatxori



Gure inguruan, herri nahiz bizilekuan, sarri ikusi eta zabal-zabal dabilen txori baten izena da (artatxorie, ahoskatuta). Batuan, txolarre edo kurloi da. Hegazti txiki eta arre koloredun honek insektuak eta garauak jaten ditu. Badoguz jasota beste izen honek be Arratia inguruan: artotxori, artetxori, txirta, elexatxori, eleitxori... Personakaz be erabilten da buru gitxidun edo txoriburuari esateko: "Zertan habil hi artatxori hori!".

ERETXIA

e-Konpetentzia edo e-Inkontinentzia

Ipñaburutik Sidney-ra edo Lapurrikeretik Oregonera klik batera gagoz; etxetik bertatik salerosketak egin, bankuagaz hartu-emonak izan, informazioa eskuratu, erre-serbak egin, argazkiak-bideoak-grabazioak egin eta aitaren baten munduko edozein bazterretan egon daiteken kideagaz partekatu. Gai gara mundu birtualean ibilteko, edo gurea uholdeari jarraitutako inkontinentzia ete da?

Oin dala urte batzuk nekez uler-tu eitekenak, gaur egunean guztiguztion egunerokotasunean bere lekua hartu dau. Arineketa biziten ikasi dogu, eta gure nahiak ahalik eta azkarren asebetetzen. Teknologia barriak, bitarteko digitalak, bereziki ordenagailu eta mugikorak, gauetik goizera etxeko egin eta ezinbestean eskura behar doguzan tresnak bihurtu jakuz. Euren atzetik etorri dira konektibitatea, aplikazioak, sare sozialak, joko birtualak edota korreokak. Dana lortu gura dogu ahal dan denpora laburrenean: salto baten. Baina, azkarregi hartutako ebazkiak eta ondorioz emondako pausuak sarritan okerrak izaten dira. Joera kritikoak ezinbestean hausnarketea, konparazioa, ebaluazioa edota informazio osagarriaren azterketea eskatzen ditu eta horretarako klik bat egiteko baino askoz ahalegin gehiago behar dogu.

Jakina da, gainera, sarean ibilteko gero eta erraminta indartsuagoak eta konektibitate ahaltsuagoak ipinten dirala salgai. Nork ez dau entzun itzelezko ilarak dagozala marka ezagun bateko azken bersino eskuratzeko? Nork ez ditu jaso behin eta barriz telefonia konpainien eskaintza gogaingariak? Informazio eta komunikazio tresneria konsumo arrunteko produktua da, eta heldu, gazte edo ume asko eta askok aldean darabilten telefono mugikorra garestia bezain azkarra da. Gainera, erropak, altzariak zein janariak klik bat eginez etxeko atean izan daikeguz, gu sofatik mobidu be egin barik. Behar doguzan generoak



AMAIA TREJO ALDEKOA

Irakaslea

edo *influencer*-ek, ereti liderrak eta marka jakin batzuek esandakoak konsumitzen doguz? Euskal Herriko merkatarien alkatetako kideen esanetan azken urteotan asko aldatu dira bai produktuen publizitatea egiteko moduak baita salerosketak egiteko moduak be. Bestalde, norberak erosketa eskaerak egiten dituanen arrasto digitalak ixten ditu sarean. Badakigu ze erabilera emoten jakien guk ipinitako informazioari?

Horren haritik gero eta azkarrago bizi dan gizarte honetan, alkarrerri begira baino ohikoagoa bihurtzen dabil pantaila batetik bestera komunikatea. Alkar ikutu barik ikonoen bitartez besarkatu edo musukatu, aurrez aurreko hartu-emonen orde, hartu-emon birtualak izatea, eta jarraitzaileak edo lagun birtualak bilatzea. Tamalez, sarri agertzen dira presan anonimatuaren itzalpean egin diran iruzur, *cyberbullying* edo bortizkeriaren barriak. Badakigu norberak argitaratutako argazki, informazio, joan-etorriak zertarako erabiliko diran? Azken ikerketen arabera, langileria kontratatu guran dabilzan gizabaliabide arduradunen %70arentzat hautagaien curriculum bezain ebartzigarria da harek itxi dauan arrasto digitala. Bestela esanda, enpresaburuak arakatzen dabe hautagaien presentzia sare sozialetan, blogetan idatzitakoa, bideoen edukia edota bertan ageri diran kideen tipologia.

Egia da gaur egun pentsaezina dala sasoi analogikora bueltetea; informazio eta komunikaziorako teknologiarik tresna eraginkorak izan daitezkeza erabilera egokia emoten badeutsegu; baina, zer da erabilera ona emotea? Zelan bermatu gure seme-alabak eta ikasleak tresna digitalen erabiltzaile kontziente eta konpetente izango dirala? Familia edo eskolako hezitzaileok benetan daukagu ezagutza nahikoa, kon-

tziente eta konpetente gara ala uholdeari jarraitu deusagu bizitza "errazten" dabelakoan baina gaien gehiegi sakondu barik eta zeren truke jokatzen gabizan jakin barik?

Eskoleak ezin deusto bizkarra emon gizaritari. Gizartean, gura ala ez, teknologia barrien erabilera gehituz doa. Eskolea ezin da atzean geratu. Baina nork ebazten dau zelangoa eta zenbateko erabilera dan egokia? Kontuan hartzean dira eda-dearen ezaugarriak? Zein ondorio dakar eskolan erraminta barri honek sarri erabilteak?

Izan be, eskoletan sarri jarri da eztabaidan ordenagailu zein mugikorren erabilerearen onurea, eskolearen zeregina dalako ikasleriaren teknologiarako konpetentziaren garapena erraztea. Heziberri 2020 marko pedagogikoa (2014) argitaratu zanetik eta 236/2015, abenduaren 22ko Curriculum Dekretuan zehaztuta dagoanaren arabera, eskolearen eta irakasle funtsezko zeregina da berbaz, berba barik eta modu digitalean komuniketako konpetentzia ikasleak trebatzea.

Berbaz, berba barik eta modu digitalean komuniketako konpetentzia dan ikaslea gai da berbazko eta idatzizko komunikazio jariokor, autonomo, sortzaile eta eraginkorak egiteko; berba bako kodeak ulertzeko, mimika esaterako, eta erraztasunez, autonomiaz, sormenez eta eraginkortasunez erabilteko eta, informazioaren eta komunikazioaren teknologiarik modu sortzaile, kritiko, eraginkor eta seguruan erabilteko, zein ikasketetan, zein aisian, zein gizarite bizitzan. (236/2015 Dekretua II. Eranskina, 30-34.o).

Eraldatze digitalak aldaketa akademiko-ekonomikoak, sozialak eta personalak eragin ditu. Aldaketa horreek gizaritean, eskolan eta familian aintzat hartuta eta gaur artekoa ikusita gure seme-alabak eta ikasleak e-konpetenteak izatea gura badogu, klik egin aurretik bere izakerea jagon, bere eretxia argudioez defendidu, sormenez jokatuta eta helburu etikoakaz inori kalte egin barik jokatzea gura badogu, guri, helduoi jagoku, eskola-alkarte edota adituakaz foroetan antolatuta, umea/gaztea oinarizko konpetentzia guzti-guztietan trebatzea, norbera izateko gai izan daiten, ikasteko eta pentsetako gai izan daiten, alkarbizitarako gai izan daiten eta ekimena eta espiritu ekintzailea izan dagian.

LUMATUTEN

MATXALEN
LEGARRETA

Zahartzaroa

Tia Balbina hil da bart. Hori irakurri neban esnatu bezain laster zein ordu zan jakiteko mobikorra begiratu nebanean. Bihotzak buelta emon eustan.

Tia Balbina nire amama Karmenen ahiztea zan. Tia eta gure amama andra indartsuak ziran, kementsuak. Gure etxeetako euskariak. Laurogeta hamar urtetik gora eukazala berrogeta hamar kilo txorizo egin zein hogeta hamar kilo bonito enbotatzen ebazan tia Balbinak, tia Agedagaz batera. Gure amama be ez zan makala. Behin gogoratzen dot besoa apurtu eba eta ziento bete piper landatu eta gero esan euskula igual komeni zala bera medikuarengana eroatea. Egunkaria irakurten eben andrak ziran, momentuko egoera politikoaz edo ekonomikoaz euren eretxia emoteko gai ziranak. Andra enpoderauak.

Tia hil zan aste berean Mundakako kale antzerki saiora hurbildu ginan. Ikusi genduan obra

bakarreko personajeak aktore gazteak interpretautako atsoak ziran. Baltzez jantzita, oker-oker eginda eta hankak zabalik mobiduten ziran andra itsusiak. Alkarrerri eta publikoari oihuka eta ia ulertu be ezin zan moduan berba egiten eutsienak. Ez eukien tia Balbina, tia Ageda edo gure amamaren antzik.

Zergaitik jarraituten dogu zahartzaroaren irudi estereotipaua elikatzen?

Adituak edadismo (ingeleseaz *ageism*, euskeraz ez naz ausartu itzultzeraz) deitzean deusie eda dea dala eta persona edo taldeen estereotipifikazioari eta diskriminazioari. Heriotzari, gaitasunak galtzeari eta dependenziari bildurra dira edadismoaren jatorria. Atso eta agureak saihestea, bereiztea eta baztertea da bildur honeei aurre egiteko modua.

Tia Balbina, tia Ageda eta gure amama Usansoloko ospitalean zendu ziran egun luzeak bertan ingresaute egon ostean. Indar eta kemen erreferenteak ziran andrak, euren azken egunetan ikusteko aukea izan genduan etxekook. Bat-batean buelta emon eban egoereak. Jada ez egozan eurak gu zaintzen, bizitza osoan zehar egin eben moduan. Geu ginan euren zaintzaile.

Bai tia biak eta bai amamak naturaltasunez onartu eben heriotzeak dakarren indar eta gaitasun galerea, eta horrek sortzean dauan zaintza beharra. Gizakiok interdependienteak garala erakutsi euskuen. Bizitzako azken egunetan guk eurak zaintzea onartu eben esker-enez.

Hori izan zan egin euskuen azken opera.

ZERTZEAN



ARITZ ARRIZABALAGA

Azken haragi zatia ahora eraman eta gero, sukaldeko aulki bakarrean eserita dagoen mutilak begiradaz jarraitu dio euliori. Lehendabiziko ahokadatik izan du gogoa zutitu eta nazkagarria zaion intsektu hori akabatzeko. Itxaron egin du, ordea. Nahiago izan du lasai bazkaldu eta gero egin egin beharrekoak.

Motelago dabil eulia orain. Esan lei baimena daukala mahaitik lasai ibili eta gelditu diren hondakin apurretatik nahi duena hartzeko eta horregatik, agian, arretatsu dabil bere bilaketan. Hori guztia, baina, mutilak badaki eta aulkitik ia zaratarik atera barik altxatu da euliaren parean jartzeko. Eskua arean zabaldu eta hogeita hamar zentimetro eskasera emango duen kolpeaz gozaten ari da. "Mugimendu bizkor bat egin behar duk, baina ia mahaia ukitu gabe" esaten zion

Eulia

amonak baserrian haurra zenean. Eta gero, zasti, eulia amonaren eskuan. Erraz egiten zuen amonak.

Eta handik gutxira berak ere bai. Hasieran bai, baina gero ez zuen inoiz hutsik egiten hain distantzia laburrean. Jo eta jo, hil eta hil. Gozatu egiten zuen hainbeste euli akabatzen zituenean. "Ez zaik ezer gelditzen" esan du bere kautan. Irribarrea ahoan sarritan esaten duen esaldia; azken kolpea eman baino lehenagokoa. Gaur, ordea, eskua atzerantz bota duenean inoiz gertatu ez zaiona gertatu zaio: pena sentitu du. Pena euliagatik. Pena, ez dakielako gutxi falta zaiola; pena, inork ez duelako bere falta sumatuko; pena, bakarrean ari delako hegaka.

Kolpea zehatza izan da. Perfektua.

Hildako gorputz txikia hego batetik eutsi duelarik irribarrea kendu egin zaio.

* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eremuan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezkerro, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Irailean bete dira 25 urte Kubulu Euskaltegia sortu genuenetik. Baina lehenago hasi zen, dezente lehenago, AEKren lana Arratian, eskualdea euskalduntzen eta alfabetatzen. Gogora ekarri nahi ditut orduan gure eskualdea euskalduntzen hasi ziren horiek: Errose Aurrekoetxea, Jose Ramon Olabari, Pedro Mari Legarreta (Albaro). Eta bizi izandako mementu on eta txar guztiak, egindako barre zein negarrak: alfabetatze-taldeak, lehen euskalduntze-taldeak, egindako Korrika guztiak, Dimeko AEKnapadak, txosnak eta txosnak... bilerak eta bilerak eta bilera gehiago... Ez da gutxi ez nolana hikoia, urte hauetan guztietan Arratiako AEK-k egin duen lana eta AEKri eta euskarari egin dion ekarpena.

Izan zirelako gara, garelako izango dira. Egun zorionsua da gaurkoa. Kristoren euskaltegi dotorea edukiko dugu gaurtik aurrera, Igorre eta Arratia osoa euskalduntzen segitzeko. Baina argi daukagu: euskaltegi batek daukan ondasunik handiena ez da metroetan neurtzen, ez gellen kopuruan, ez ordenagailuen zenbakian (nahiz eta, gauzak diren moduan, laguntzen duen horrek guztiak). Euskaltegi bateko ondasunik handiena, bertatik pasatu diren eta gaur egun ari diren ikasle eta irakasleak dira. Horregatik, euskaltegi berria, mugarriz izanagatik, guretzat da, guztiaren gainetik, Arratia euskaldundu arte lanean tinko segitzeko hauspoa.

Klara Astondoa

(Kubulu Euskaltegiaren inaugurazioan egindako berbaldiaren zatia)



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscl.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Odoztorgoa

Bidebarri 1. behea
48140 Igore-Bikala
T. 94 631 50 39
Kalejatu Zirkulari 101
R.P.S. 21/06

J.A. IZQUIERDO
PINTURA LANAK

MOKETA · SINTASOLA · PAPEREA

Elizola, 33 D - 1º · 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel. 94 631 64 82 · 506 664 018

FISIK
FISIOTERAPIA ETA
ERREHABILITAZIO ZENTROA
Tel. 94 685 11 16
LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

IGORRE

Igorreko Udalak Auzitegi Nazionalera joko dau goi-tensinoko linea dala-eta

Gueñes-Itsaso goi-tensinoko linea eregitea eragozteko bide administratiboa agortu ondoren, Auzitegi Nazionalera joteko erabagia hartu eban Igorreko Udalak urri bigarrenaren 1eko Osoko Bilkuran, Red Electrica Españolaren (REE) proiektuari emondako Baimen Administratiboaren kontra agertuteko.

Erredakzioa

Ebatzia aho batez hartu zan, EH Bil-du eta EAJ-PNVren aldeko botoakaz. Beinat Anzola Igorreko alkatea itxaropentsu eta baikor agertu da bide judizialaren aurrean. Izan be, REEko hasikerako trazaduak ez dau Bizkaiko Foru Aldundiko sai zuriaren babeserako legedia beteten eta REEko aurkeztutako Ingurumen Eragin Adierazpenak ez dau jasoten linearen trazadu alternatiboak hartuko leuken lur eremua. "Gainera, aurten ez badira lanak hasten, IEAren epea amaituko da". Horregaitik, proiektu guztia bertan behera geratutea gaxa dan arren, Igorretik ez pasetako aukerak badagozala uste dau.

Burruka luzea


Lehenengo alegazioak eta alternatibak 2011n aurkeztu ebazan Udalak. "Ingurumenari jagokozan alegazioak ziran, etxebizitzai, distantziak, urigintza aldetiko eraginak... Eta eskatu jakon Icarus enpreseari sai zuria eta beste hegaztien inguruan txosten bat egiteko. Izan be, inguru horretan sai zuriaren hainbat habia dagoz eta hegazti hori babestuta dago".

2016ra arte ez zan erantzunik heldu eta bitartean, 2015ean, hegazti nekrofagoak kudeatzeko Planaren Foru Dekretua atara zan. Dekretuaren arabera, hegazti honek bizi diran lekuetatik kilometro batera ezin da linearik pasau. Hori

dala-eta, hasikeran proiektuta egoan lekutik ezin izango litzateke goi-tensinoko linearik pasau.

Trazaduari alternatiba ofizialik egon ez arren, REEko Aldundiari txosten bat aurkeztu eutsala beste trazadu bat proposatuz dino Igorreko alkateak. "Baina guk uste dogu alternatiba horretatik joan ezker, urten egingo dirala euren Ingurumen Eragin Adierazpenaren eremutik eta beste bat egin beharko dabela".

Ha-ta guzti be, 2017ko abenduan Gueñes-Itsaso linearen Baimen Administratiboa heldu zan eta 2018ko martian, Udalak gora joteko errekursoa aurkeztu eban Baimen Administratiboaren kontra. Oin, bide administratibo guztiak agortuta, 2018ko urri bigarrenaren 1ean, Osoko Bilkuran Igorreko Udalak Auzitegi Nazionalera joteko erabagia hartu eban.



LEMOA

Harriketarrak Gazte Asanbladearen 19. urteurrena

Erredakzioa

Lemoako Harriketarrak Gazte Asanbladearen hemeretzigarren urteurrena ospatuteko hainbat ekitaldi

antolatuten dabiz urri bigarrenaren 27rako, Karabie Gaztetxean eta inguruan. Goitibehera jeitsierea eta kontzertuak dira horreetako batzuk.

BEGITURI jakin arazotakoaren arabera, 13:00etan, kuadrillen jolas poteoa egongo da eta 14:30ean bazkaria. Arrastian, goitibehera jai-tsiera 17:00etan izango da; poteo musikatua 19:30ean hasiko da eta, egunari amaiera edo-eta gauari hasikerea emoteko, kontzertuak 22:30etik aurrera. Sua taldea eta DJ bat egongo dira jai animetan.

AREATZA

Areatzak prozesu parte hartzailea abiatu dau udal eraikinen erabilera zehaztuteko

Eraiki izeneko proiektu honen helburua, Udalak dituan hainbat espazio eta eraikineri etorkizunean emongo jakon erabilera herritarrak zehaztea da, euren beharrianak kontuan hartuteko. Prozesua Maraka Kooperatibearen gidaritzapean abiatu da. Urrietan eta zemendian zehar jentegazko lau saio aurreikusten dira, Udalak emaitzen aurkezpena egin aurretik.

Erredakzioa

Prozesua hasita dago. Izan be, urrietan Udalak Eraiki proiektua azalduten dauan eskuorria bialdu eban etxeetara. Eskuorrian, Udalak daukazan 12 espazio eta lokal ikusi daitezke, bakotxa bere ezaugarriak: kokapena, irisgarritasuna, zertarako erabilten dan eta ea obrea behar dauan ala ez. Lokal bakotxak zenbat metro karratu daukazan aurrez aurreko saioetan jakinarazoko dau Udalak.

Eskuorri barrenean, galdetegi bat dago herritarrak euren eretxia emon dagien. Galdetegia udaletxe atean horretarako ipinitako postontzian sartu behar da.

Prozesuaren egutegia

Urrietan diseinurako ikerketa eta informazio bilketea hasi zan. Aurreikusita dagozan hurrengo pausuak, jente aurreko lau lan saio eta emaitzen aurkezpena dira. Lehenengo saioa, urri bigarrenaren 17an izango da udal-terreko arkupeetan, ikerketearen kontrastea eta jenteak ekarpenak egin dagiezan. Espazioen erabilera birpentsetan hurrengo saioan hasiko dira billaroztarrak, zemendiaren 7an, Ekitaldi Aretuan. Egun bi geroago izango dan hirugarren saioa, gazteak dagoz deituta euren ikuspuntutik egiten dabazan ekarpenak jasoteko. Eta espazioen erabilerak zemendiaren 29an definituko dira. Saio guztiak arrastiko

seiretan izango dira.

Ondoren, prozesuaren emaitzak Udalean aztertuko dira eta ebatziak herritarren aurrean aurkeztuko dira zehaztu barik dagoan fetxa baten.

Etorkizuneko Areatza

Eraikinen erabilerak eragin zuzena eukiko dabe herrian bizi diranen bizimoduan. Eraiki proiektuak "zedarrituko dau neurri handi baten etorkizunean Areatza zelangoa izango dan edo ze eraikin erabiliko dogun. Gure ustez sano proiektu garrantzitsua da, jenteak esango daualako zer botaten dauan faltan eta zer aldatuko leukean. Eta hor ebazten danagaz etorkizunean gauza asko bideratuta geratu ahal diralako" dino Maitane Diez zinegotziak.



eraiki AREATZA

Eraiki proiektua Areatzan dardan hainbat udal espazio antolatuta eta espazio horiek etorkizunean emongo jakon erabilera zehazteko prozesu parte hartzailea da.

El proyecto Eraiki es un proceso participativo cuyo objetivo es organizar visitas a edificios municipales de Areatza y determinar cuáles serán sus usos futuros.

PROZESUA / PROCESO		
0. saioa / sesión Informazio bilketa Informazio bilketa: kontzertuak, dantza, hitzaldiak eta abar. Saioa - urri 17an - asteleke	1. saioa / sesión Ekarpenak Kontzertuak eta abar. Urriak 17 de octubre 18:00-20:00 Ekitaldi aretoa Espazioak del Ayuntamiento	2. saioa / sesión Erabileraren erabilera Erabileraren erabilera. Asteak 7 de noviembre 18:00-20:00 Ekitaldi aretoa Saioa de aroa
3. saioa / sesión Erabileraren erabilera Erabileraren erabilera. Asteak 9 de noviembre 18:00-20:00 Ekitaldi aretoa Saioa de aroa	4. saioa / sesión Erabileraren erabilera Erabileraren erabilera. Asteak 29 de noviembre 18:00-20:00 Ekitaldi aretoa Saioa de aroa	emaitzen aurkezpena Emaitzen aurkezpena. Asteak 30 de noviembre A aretoa

ARRATIA


Arratiako herriak eta Zeberioak Euskaraldian hartuko dabe parte

Erredakzioa

Zemendiaren 23tik abenduaren 3ra arte "Euskaraldia, 11 egun euskaraz" dinamikea gauzatuko da hizkuntz ohiturak aldatuteko eta ohiko hartu-emonetan euskera gehiago egiteko asmoz. Bertan parte hartzeako, ehunka herrik eta entidatek emon dabe izena.

Tartean, Areatzak, Arteak, Bediak, Dimak, Igorrek, Lemoak, Zeanurik eta Zeberioak.

Herri horreetan jenteak emon leike izena, ahobizi edo belarriprest moduan parte hartzeako. Ahobiziak, hamaika egunetan, euskerea ulertzeko gai diran guztiak euskeraz berba egiteko eta ezezagunai lehenengo berbea



euskeraz egiteko konpromisoa hartuko dabe. Belarriprestak berriz, berba egin ez arren euskerea ulertuten dabena dira eta Euskaraldian, euskal hiztunai euskeraz egiteko eskatuten deusez, erderaz erantzun ahal deusez arren.

IGORRE

Ines Medinaren ikasleen erakusketea Igorren

Erredakzioa

Ines Medinaren mintegian parte hartutako hamabost artista plastikok, bina artelan erakutsiko dabe *Sorkuntza plastiko genuinoak bere dituen egiturazko metodologia eta teknika berritzaileak* izeneko erakusketan. Lanok zementiaren 30era arte egongo dira ikusgai Igorreko Kultur Etxeko Erakusketa Aretoan. Inaugurazioa hilaren 19an izango da, 19:00etan, Borja Estankonaren kolaborazioagaz.

Ana Rosa Arroyo, Arantza Pineda, Catalina Grajales, Edorta Bilbao, Elena Solatxi, Feli Agirre, Iratxe Etxebarria, Juan Maria Mateos, Loli Undagoitia, Marian Daubagna, Marisol Calzada, Mirren Bilbao, Pedro Pineda, Rosa Maria Montesinos eta Tere Uribe-Etxebarriaren lanak batzean dira erakusketan. "Dibersidadea, kalidade teknikoa eta plastikoa eta sorkuntza genuinoak" dira erakusketearen ezaugarriak Ines Medina komisarioaren arabera.

Batez be pintura eta marrazkia da ikusgai dagoana. Tamainu, eus-

karri, teknika eta estilo ugarikoak. "Erakusketearen beraren izenak azalduten dauan moduan, aurten ipini gura izan dot indarra egiturazko teknika eta metodologia pedagogiko eta sorkuntzakoetan. Honeek eragiten dabelako, Igorreko Kultur Etxean ia 10 urtez garatzen gabizen proiektuak lortzean dituan emaitza genuino eta kalidade artistiko handikoak" azaldu



Elena Solatxiren lan bat.

deutso BEGITURI Ines Medinak.

Hasikera hasikeratik, Igorren egiten diran mintegi honeetan parte hartzean dabe esperientzia artistiko bako personak zein Arte Ederretan lizentziatu eta doktoreak. Partaideak, Santurtzi, Leioa, Bilbo, Mungia, Zornotza, Durango, Dima, Artea, Areatza eta Igorretik bertatik hurreratutakoak dira, besteak beste.

Matrikulea zabalik

Hurrengo mintegi bietarako matrikula epea zabalik dago Igorreko Kultur Etxean. Lehenengoa zementiaren 17an hasiko da eta bigarrena 2019ko urtailean.

ARRATIA

Gure Esku Dago ekimenak deituta, konzentrazioak egin ziran urri bigarrenaren 1ean

Erredakzioa

Iguzko urri bigarrenaren 1ean, Katalunian erreferenduma egin eben egunean gertatutako gogora ekarteko, Gure Esku Dago elkarretaratzeak deitu ebazan ur-

temugan.

Areatzan, Diman eta Igorren erantzun eutsien deialdiari. Lazu horiak, estelada eta ikurriñakaz konzentrazioak egin eben Dima eta Areatzako herriko plazetan eta Igorreko Kultur Etxe aurrean.



ARRATIA

Sasoiko barazkiakaz errezeta desbardinak egiteko sukaldaritza ikastaroak

Erredakzioa

Gure jateko moduak eragin zuzena daukala ingurunean eta gure osasunean eretxita, *Ondo jateko errezeta mundialak* izenpean sukaldaritza tailerrak antolatu ditue hainbat eragilek zementiarako. Hiru tailer dira. Lehenengoa, *Hemen ez da ezer botatzen, probetxu osoa atera jakiei* izeneko zementiaren 8an izango da Lemoako Karabie Gaztetxean; bi-

garrena, *Zer egin gure kontsumo taldeko saskiarekin*, zementiaren 15ean Igorreko Kiñu Gaztetxean, eta hirugarrena, *Elikadura, kulturaren parte, munduari begira* izeneko, zementiaren 22an izango da Arteako Herriko Bentan.

"Bertoko eta sasoiko barazkiak jatean, bertoko baserriak eta geure burua be elikatzen doguz. Bertoko ortuetan sasoi batzuk gogoragoak dira barietadea murriztagoa dalako eta horregaitik garrantzitsua da janaria prestatzeko orduan baliabide desbardinak eukitea" dinoe antolatzaileak. Hori dala-eta, produktuak modu diferenteetan prestatzeko errezetak eskaintzen dauz ikastaroak.

Hiru saioiko ikastaroa

Ordu bi t'erdiko, 18:00etatik 20:30era arte, hiru saio edo tailerretan bananduta dago ikastaroa. Lehenengo saioan, Txaramela Ingurumen eta elikadura eskoleak, gure sukaldetan sortutako jakien soberakinaz baliatuz, errezeta original eta errazak egiten erakutsiko dau. Eta jakiek prestatu bitartean, erosketa arduratsuen gainean egingo dabe berba,

hondakin organikoak murrizteko.

Bigarrenean, Sustraiak Catering ekologikoak, hemengo ortuetan dagozan barazkiak ezetuten eta erabiltzen erakutsiko dau eta partaideak errezeta desbardinak prestatuko ditue. Mizuna, packchoy eta kolinabo moduko barazkiakaz menua prestatuko dabe: plater bi eta postrea.

Hirugarren saioan barriz, janariagaz lotuta doan kultura landuko dabe. Horretarako, munduko herrialdeetako plater tipikoak egingo ditue hemengo produktuakaz.

Tailerrok independenteak dira eta bat, bi zein hiruretan emon daiteke izena info@sustraiakcatering.com helbidean edo 645 046 005 telefonora deituta.

Hainbat eragile

Ikastaro honeek aurrera eroateko, hainbat eragile behar izan dira: Igorre eta Lemoako gaztetxeak, Arteako Herriko Benta, Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformea, Igitie Baserriar Agroekologikoen Alkartea, Sustraiak Catering, Txaramela pasta agroekologikoa eta Gorbeialde Landa Garapenerako Alkartea.

ARRATIA

Arratia mailako bazkariak herrietako nagusiak batu ebazan

Erredakzioa

Burrukan bat egin eta indarrak batuteko, alkar ezetutea eta alkarrengan konfiantzea eukitea funtsezkoa izaten da. Urri bigarrenaren 7an, Arratia mailako nagusien lehenengo bazkarian, 130 lagun inguruk hartu eben parte.

Urri bigarrenaren 1ean, Nazinoarteko Nagusien Eguna da eta hori ospatuteko bailarako jubila-

du eta pensinodunen alkarrengan bazkaria eta jantzaldia antolatu eben Igorren.

Eguna jai giroan ospatu eben. Izan be, helburua alkarrengaz ondo pasetea eta herri desbardinaren arteko nagusien artean loturak egitea zan. Ha-ta guzti be, duda barik, pensino duinen aldarrikapen eta burrukea barriketaldi informal askotako berbagaia izango zan bazkalostean.



ARRATIA

Beldur Barik Lehiaketarako ikus-entzunezko lanak aurkezteko epea zabalik

Beldur Barik programeak "Beldur Barik Jarrera!"

Lehiaketaren 9. edizioa ipini dau martxan. Programa hau gazteak egiten da indarkeria matxistea prebeniduteko. Ikus-entzunezko lehiaketa da eta 12 eta 26 urte bitarteko gazteai dago zuzenduta. Lanak, lehiaketa orokorrean eta tokiko lehiaketa hartzean dabe parte. Arratia mailako sariak Arteako Kultur Etxean bananduko dira zemendiaren 23an.



Igazko sari banaketean.

Erredakzioa

Lanak erakutsi behar dabe zelan neska eta mutilak egiten deuseen aurre desbardintasun egoerai Beldur Barik jarkereagaz; hau da, errespetua, parekidetasuna, askatasuna eta autonomia, alkarkidetzeta eta indarkeria sexistaren bazterketa irmoa adierazoten dabezan jarkerakaz. Arratian, Beldur Barik programearen harira, tailer bi antolatuko ditu Arratiako Udalen Mankomunitateak (AUM). Bata neska zuzenduta eta bestea mistoa. Holan, zemendiaren 9 eta 10ean, Igorreko Kultur Etxean, 15-19 urte bitarteko neskentzako autodefensa ikastaroa egongo da. Neska-mutilai zuzendutako barriz, grafiti ikastaroa izango da. Horreetan tailerretan Beldur Barik jarkerea landuko da.

Aurten, barrikuntza moduan, lanen gaiak mailakatzeko eta indarkeria sexista edo kultura matxistaren faktoreen sakontzean argibideak emoteko, hiru norabide zehaztu ditue Beldur Barik programan: "sare erantzun moreak", "maitezmindu" eta "txo! konzientzia piztu eta jarrera berriztu" ize-

nekoak, hain zuzen be.

Sariak

Kategoria bi dagoz; 12 eta 17 urte bitarteko egileak, eta 18-26 bitartekoak. Tokiko Lehiaketa, hau da Arratia mailan, kategoria bakotxean 300 euroko saria egongo da. Aurten, saritutako lanak zemendiaren 23an ezetuko dira Artean ospatuko dan Beldur Barik Arratia Topaketan. Urtero antolatzen dan topaketa honetan, ikus-entzunezko lanak jai giroan ikusi, sariak banandu eta kopautxo egoten da. Arratiako epaimahaia, Arratiako Udalen Mankomunitateko ordezkariak, talde feminista eta andra alkarteetako ordezkariak eta Hezkuntza edo sormen munduko ordezkariak bategosotuko dabe.

Sari banaketea hasi baino lehen, txapak egiteko eta kamisetak serigrafietako tailerrak egongo dira. Baita photocall-a be.

Lehiaketa orokorrean, kategoria bakotxeko 500 euroko lehen sari bat eta 300 euroko aipamen berezi bana bananduko dira, zemendiaren 24an, Arabako oindino zehaztu barik dagoan herri baten egongo dan topaketan.

ARRATIA

Arratiako andra talde eta talde feministak Emakumeen Mundu Martxako ordezkariak Dima eta Arteara konbidau dabez

Erredakzioa

Emakumeen Mundu Martxako (EMM) ordezkariak, urri bigarrenaren 22tik 28ra XI. Nazinoarteko Topaketan Bilbon egongo diranez, Arratiako andra taldeak eta talde feministak, urri bigarrenaren 28an, domekan, jai giroan Arratian egun pasa egitera konbidau ditue.

Asmoa, Dimako Indusin alkartutea da. Han, harrerea egingo jakie, mitologia apur bat azalduz eta txalaparta eta jantzakaz; eta gero Baltzola kobara joango dira danak oinez. Ondoren, Arteara joango dira eta Arratiakoak Mundu Martxakoai, Arteako Andran Gela eta Herriko Bentako proiektua erakutsiko deusez bazkalaurretik.

Ibilaldian edonork hartu ahal dau parte eta bazkarian gura daben andrak. Bazkaria plazan izango da eguraldia ona bada, eta frontoian euria egin ezker. Bazkalostean, hartuemonak sendotu eta ondo pasetako, munduko jolasak erakutsiko deusez alkarreri bazkarian batutako

andrak. Txartelak erosteko atzen eguna urri bigarrenaren 23a da.

Nazinoarteko Topaketea

Emakumeen Mundu Martxaren nazinoarteko topaketak urte birik behin egiten dira. Aurtengoan 40 herrialdeetako 130 andra baino gehiagok hartuko dabe parte, *Batu indarrak, urrutira goaz! Gure gorputzen eta lurraldeen burujabetzara!* lelopean.



Hilketa matxistai erantzuteko EMMren protokoloa

Arratian be, hilketa matxistai erantzuteko EMMren protokoloari jarraitutea ebatzi dabe andra taldeak eta talde feministak. Hau da, indarkeria matxistek Euskal Herrian bizi proiektua daukan andra bat hiltzen dauan bakotxean, albistea prensan agertu eta 24 ordura konzentrazioa egiten da Igorren. Protokolo horren arabera, herri guztietan manifestu bera irakurten da, eta irudi bardinak erabiltzen dabez kartel eta pankartetan.

Protokoloari jarraituta bitan egin dira konzentrazioak Igorren hilketa matxistak salatuteko. Bata, abuztuaren 28an, Uhartan (Nafarroan) gizonak Natalia Ballyk hil ebala salatuteko eta bestea, urri lehenengoaren 25ean, Bilbon, Maguette Mbeugouren hilketearen ostean. Maguette Mbeugou, Euskal Herrian aurtan eraildako seigarren andrazkoa izan da.

AREATZA

Andrak kultureari egindako ekarpena erakutsiko dau Areatzako Euskal Jaiak

Erredakzioa

Hiru urte dira Areatzako Euskal Jaiak bere egiten dauala Ondarearen Europako Jardunaldietako gaia eta aurtan be holan izango da. Holan, euskal kultureari andrak egin deusien ekarpena landuko dau bezperan, Iratxe Retolazak berbaldi bategaz. Hurrengo egunean, urri bigarrenaren 20an, Euskal Jaian, ez dira falta azokea, bertsolariak, herri bazkaria, kalejirak eta erromeria. Eguna amaituteko, billaroztar batzuek egindako berakatz-zopea bananduko da bertaratutakoan artean.

Igaztik, Euskal Jaiak barikuzapua hartzean dau. Hilaren 19an arrastiko 19:00etan hasiko da aurtengo Euskal Jaia, Iratxe Retolazak emondako berbaldi-tailer bategaz. Gaia, *Emakumeak euskal kulturaren ekarpenak eta erronkak* izango da. Yazmina Beobide zinegotziaren esanetan, aurtengo Euskal Jaian dana doa andrak kulturaren egindako ekintzen inguruan eta ze lotura euki daben andrak kultureagaz plazara-

tzeko asmoagaz.

Eguna 11:30ean hasiko da Maria Kruz de Gurutzeta plazan. Gurutzeta, emagina izan zan Areatzan eta hareri eskainitako plazan, herriko jantza taldeak egingo dau jantzan. Gero, 12:00etan, Uxue Alberdi, Onintza Enbeita, Miren Amuriza eta Oihana Iguaran bertsolariak *Ez da kasualitatea* bertso saio musikatu eskainiko dabe. Ez da kasualitatea lau bertsolariak andrazkoak izatea; askoz gehiagotan gertatzen dana danak gizonezko izatea be kasualitatea izaten ez dan moduan. Saioak, "umorea, jolasa, gogoeta, andren arteko konplizitatea, musika eta bertsoak buztartzen ditu".

Azokea eta dokumentala

Goizean artisau eta inguruko ekoizleen azokea egongo da. Hoge postu ingurutan ekoizle txikien eskaintza ugaria egongo da ikusgai eta salgai. Bizkaiko Gaiteroak ibiliko dira goiz osoan musika ipinten herrian.

Goiz osoan zehar be, bere sasoian Areatzako Emakumeen Fo-

roak, herriko andren historia eta bizi esperientziak jasoz egin eban dokumentala egongo da ikusgai Ludotekan. "Ez da emonaldi bat izango. Etenbarik egongo da proiektetan, amaituten danean, barriro hasiko da. Holan jentek gura dauanean sartu eta ikusteko aukerea izango dau" azaldu deutso BEGITURI Beobidek.

Erromeria eta berakatz-zopea eguna amaituteko

Herri bazkaria egongo da 15:00etan eta 18:30ean, EinGo Kantan eta Dantzan taldeagaz kantu potea herrian zehar. Zortziretan barriz, erromeria egongo da Patxi eta Konpania taldeagaz, Larrain jantza bategaz amaituko dana.

Dana amaitutakoan, indarrak barritzuteko, herritar batzuek egindako berakatz-zopea dastatzeko aukerea egongo da.



JUAN BARROETA

Juan Barroeta margolaria, Arratian

Bizkaian Erregimen Forala indarrean egoan oindino 1871n. Bilbotik Biturira joan kamino barria be baegoan martxan. Azpiegitura garrantzitsu hau eginda egoala aprobetxauz, lehenengo bainuetxea zabaldu zan Arratian, Artean konkretuki 1870. urtean. Bainuetxeak osasuna zainduteko eta atsedena hartzeako aukera ezin hobek izaten ziran, batez be udan eta bainuen denporaldian Bilbotik etorten ziran bisitariarentzat. Hurrengo urtean, Barroeta Arratiako haranera ailegau zan.



Juan Barroeta, 1871. Akwarelea. Arratiako paisajea (Arteako Bildosola auzoa eta Arratia ibaia).

Angel Larrea Beobide

Nor zan artista hau? Juan Francisco Barroeta Anguisolea (1835-1906) margolari bilbotarra zan. Bere aita Juan be (Ugao/Miravalles, 1801-Bilbo, 1852) pintorea izan zan eta bere

ama, Rufa, bilbotarra. Gaztetan hasi zan Juan Francisco pintetan, aitik animauta. Madrilera joan zan ikasketak artistikoak egitera, Federico Madrazo margolari ospetsuaren gidaritzapean, San Fernando Akademiara 1851-1855 urteetan. Sizilian (Italia)

be egin eban Barroetak egotalditxo bat lanean. Barroetaren asmoa baina Madrilan geldidutea zan, lan artistikoa egiten. Gauzak ez ziran ondo atera, eta Barroeta Bilbora bueltau zan 1859ko urtean. Pinturan, gai bi ebazan gustukoak: paisajea eta erre-

tratu. Bere obra guztia ikusita, gehienak erretratuak dira, baina paisajeen presentzia kontuan hartzeakoa da. Guk paisajeen inguruan egingo dogu berba. Carlos de Haes pintore belgikararen eraginari esker heldu jakon Barroetari zaletasun paisajista. Barroetak pintau ebazan paisaje gehienak Abra inguruan kokatzen dira, hau da, Portugaleten, Sestaon, eta batez be, Getxo inguruan (Areeta eta Algorta). Azken auzo honetan bere bigarren etxea hartu eban Barroetak; holan, erosoago eukan pintau gura ebazan parajeetatik ibilteko, baita lehen aitaturako Haes lagunarengandik be hurbilago egoteko. Orduko urteetan, 1864an, Delmas idazleak argitara emon eban *Guía histórica descriptiva del viajero en el Señorío de Vizcaya* izenburuko liburua. Gida honek be animauko eban Barroeta Bizkaiko herrietatik urtekerak egitera, bisiten bidez lurraldearen eskualde desbardinak hobeto ezetuteko. Beraz, Barroeta aitzindaria izan zan euskal pintore eta artisten artean XIX. mendearen azken hamarkadetan, lehenengo biaje edo urtekerak kulturak egiten hasi zalako.

Barroeta Arratian

Esate baterako, Bilbotik Artea lau legoa egozan. Bidarlo hori egiteko, ordu batzuk behar izaten ziran diligentsia baten. Diligentziaren Igorreko geltokian fonda bat egoten zan eta Arantzazuko paradan mesoi bat, Barroeta moduko pasoko biajarrien zerbitzurako (jana, edana eta deskantsurako kuartu bat, gitxienez). 36 urteko gizon hareri gustau jakon Arratiako bailara margolanak egiteko. Ikusi eban leku aproposa zala bere estilo artistikoari ("realismo" esaten

jako), etekin onak aterateko. Lokalizazioak topetan ibili zan, koadru politak pintetako. Eta aurkitu eban: aurretik, lekuaren bozetoak eta, behar bada, argazkiren bat egingo eban; gero, taulan pintzelakaz akua-relea pintetako. Barroeta lehen akua-relista lez kontsiderauta dago euskal artisten artean. Barroetaren teknika zera deitzen da: "akua-rela siku", lehenengo egiten da kalidade oneko eta detaile handiko marrazketea, eta ostean marrazketearen barruko espazioa pintau egiten da. Kolorak, gainera, perspektibea emoten deutso koadruari. Beste konstante bat Barroetaren akua-reletan argiaren tratamendua da. Ezaugarri honek ondo igartzen dira gaur dakarguzan hiru akua-rela honeetan.

Lehen irudian ikusten dan moduan, errekan ur gitxi dator. Zergatik? Gehiena errotetan aprobetxetan zalako; gainera, udaren amaieran, ura baju etorten da. Koadruaren irudiagaz jarraituz, deigarriak dira lehen planoan dagozan errekonkoko kanaberak, baita andra-gizonak be, kanaberak ebagi eta batu ostean moltsoan ipinten. Arteako Bildosolako auzoko hiru etxe dira, eta margoaren ezkerretik hasita dagoan lehen etxearen ondoan eraikuntza baten amaizoa agertzen da. Koadruan baina, etxeen alboan edo atzekaldean dala erreparau deitsagu.

Bigarren irudia be leku berean egin eban Barroetak: Bildosola ondokit pasetan dan Arratia ibaiaren presea da bigarren akua-relearen gaia. Presatik hur andra baten figura agertzen da margotuta, bere erropak eta aurreko irudian dagoan andreakan bardinak dira: buruko painelu zuria, gona gorria... Arbolen artean, etxe baten irudia dago, lau uretara egingdako teilatu batez; antza, Bildosolako jaubeen etxe nagusia izan zan. Koadruaren atzekaldean sano argi nabaritzen dira Lekanda, Upo, Alda-



ALKIZABAL

ZURE BEHARREI ERANTZUNA

Bolunburu Poligonoa, 19
Amorebieta - Lemoa errep.
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06
Fax. 946 31 20 26
alkizabal@alkizabal.net




www.alkizabal.net









ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK

ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDI ETA INDUSTRIARAKO MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIKIRUA ETA SALMENTA

min eta Gorbeiaiko altuerak.

Goazen hirugarren irudiagaz. Arantzazuko Olarra eta Ibarreta auzoetatik pasauta, herriko erdigunera edo Zelaiara heldu zan Barroeta. Han, kamino barriaren ondotik begiratuta, beste paraje hau agertzen jakon begien aurrean: Arantzazuko eleizearen ingurua, hau da, San Pedro parrokia eskoiatar, erroteraren etxea erdian, eta harrizko zubi lepoduna bere hatx handia ondoan dauala ezkerretara; urrinean, Aramotz mendilerroa eta Urtemondo hatxa. Hemen amaituko zan Barroetaren ibilaldi hau Arratiatik. Barroetaren atzetik, hainbat artista etorri ziran Arratiara pintetan eta ar-

telanak egiten. Arteatik be hasi ziran hamarkada bat beranduago beste margolari bilbotar batzuk (Anselmo Guinea eta Adolfo Guiard) Arratiara etorten eta bailarako hainbat leku koadruetako irudi eta gai bihurtuten. Kontuan hartzekoa da, gainera, Barroetaren egonaldiaren hurrengo urtean beste gerra karlista bat sortu zala eta haren amaieran, 1876an, Foruen abolizinoa gertatu zala. Barroetak gerran parte hartu eban, liberalen artean, Bilboko setioan, burruka egiten karlisten aurka.

Gerrearen ostean, Barroetak ekingo deutso bere lanari: orduko urteetako burges aberats eta poderetsuen erretratuak egiten. Izan be, Bizkaiko



Juan Barroeta, 1871. Akwarelea. Arratiako paisajea (Bildosolako presea, Artea).



Barroeta, 1871. Akwarelea. Arratiako paisajea (Arantzazu).

industrializazioaren prozesuan parte hartu eban familietako partaide nagusien enkarguakaz posizino ekonomiko eroso lortu eban. Beste aldetik, Barroetak hainbat aldizkaritan kolaborau eban, pinturari buruzko artikulakaz, eta abar. Ilustratzailea, operetako eszenografoa eta Bilboko Arte eta Ofizioko Eskolako irakasle eta agintari karguduna be izan zan.

Eskolan bertan gorago aitatutako Anselmo Guinea ezetu eban, beste akwarelista handi bat. Barroeta hil zanean (1906. urtean), ez eban itxi ordezkorik. Moda artistikoak asko aldatu ziran XX. mendearen lehen hamarkadetan eta Barroetaren obrea alboratuta gelditu zan. Bestalde, pintura gehienak bilduma partikularretan egon dira: esate baterako, lehenengo

eta bigarren margoak Markina-Xemeingo Murga Palazioan. Oin ezetu doguz, Bilboko Arte arloko subastak edo enkanteak egiten dabezan etxeak publikora atera dabezanean.

***Oharra:** Iñaki Elexpe igorretzarrari eskerrak emon behar deutzadaz artikulua hau egiteko materiala pasau deustalako.



Bakoitzaren ezaugarrietara egokitutako tratamenduak, kontestu desberdinekin harremanetan, beti erantzunik onena emateko prest!

- Laguntza psikoedukatihoa
- Eskolako lanak egiteko laguntza
 - Logopedia
 - Psikologia
 - Fisioterapia
 - Psikomotrizitate
 - Adimen emozionala
 - Jarrera arazoak
 - Trebetasun sozialak
 - Estimulazio goiztiarra
 - Ulermen tailerra
 - Arreta lantzeko tailerra
 - Emozioak lantzeko tailerra
- Errealitate birtualarekin saioak
 - Montessori metodoa
 - Arlo desberdinen balorazioa
 - Eta askoz gehiago...



RAIDA

Orientazio astegoiena hilaren atzenean Areatzan

Mapea eta iparrorratza hartuta, GPS barik egiteko hainbat proba antolatu dabe Lamino Kirol Klubak eta Arratia Raid taldeak urri bigarrenaren 27 eta 28rako.

Erredakzioa

Zapatuan, hilak 27, VII. Arratia Raid jokatu da eta hurrengo egunean, Euskal Mendizale Federazioaren (EMF) orientazio martxea.

Arratia Raida Iparraldeko ligan sartuta dago. Zati bat Gorbeia Parke Naturalean antolatutako aukerea euki dabe eta Saldropon hasiko da proba. "Zati garrantzitsu eta politena trekkinga izatea gura dogu, partaideak Gorbeia parke naturalagaz gozatzeko aukerea eukiteko" azaldu deutso BEGITURI Xabier Iturriaga antolakuntzakoak. Raida 13:00etan hasiko da eta 7 ordukoa da. Partaideak bikoteka egingo dabez hurrengo probak: trekkinga, orientazio proba berezia, mendi bizikletea, piragua eta herriguneko orientazio proba Areatza barruan. Trekking eta mendiko bizikletarako materialak, hau da, zapatilak, motxila, mendiko bizikletea, kaskoa eta abar, partaideak eroan behar dabez;

piraguak, barriz, antolakuntzeak ipiniko dauz.

Izena, arratiaraid.blogspot.com-en emon daiteke.

Domekan orientazio martxea

Hurrengo egunerako, Lamino Kirol Klubak, Euskal Mendizale Federazioak eskatuta, orientazio martxea antolatu dau Gorbeia Parke Naturalean. Orientazio martxea, markautu ez dagoan mendi ibilbide bat egitea da, mapea eta iparrorratza erabiliz. Hau be Saldropon hasiko da goizeko 10:00etan.

Aukera bi egongo dira. Batak, ibilbide luzeak, 16 kilometro eta 1.000 metroko desnibela izango ditu eta partaideak lauzpabost ordutan egitea espero da. Ibilbide laburrak barriz, familiar, umeakaz egiteko aukerea emoten dau; izan be, 9 kilometro eta 600 metroko desnibela dauka ibilbideak.

Euskal Mendizale Federazioaren webgunean emon daiteke izena.

PELOTEA

Cafes Baque Txapelketako Gazte eta Kadete mailako txapelak Zeanurira joan dira**Erredakzioa**

Finala urri bigarrenaren 11n jokatu zan lurretako frontoian. Kadete mailako txapela segurtuta eukan Zeanurik, finalera heldutako pelotari biak bertakoak ziralako, Maren Emaldi eta Danel Beitia. Emaldirentzat izan zan txapela 18-3 irabazita. Gazte mailan, Zeanuriko Beñat Etxeita Ortuellako Liher Cortazarregaz neurtu zan, 15-22 irabaziz.

Bizkaiko Etorkezuneko Eskuzko Cafes Baque Txapelketaren 33. edizioa izan da aurtengoa. Bertan, Zeanuriko Joko Alai nabar-

mentu da eskola guztien artean Zeanuriko pelotariak egin daben txapelketa bikainagaitik. Izan be, finalurrekoetara, Gazte mailan, Zeanuriko beste pelotari bat heldu zan, Anton Erkiaga, igazko Kadete mailako irabazlea. Ezin izan eutsan Cortazarre irabazi, ezipabere, finalean danak izango ziran Zeanurikoak. Ha-ta guzti be, lau finalistetatik hiru ziran Joko Alaiakoak eta txapel biak irabazi ebezan.

"Igaz Kadete mailan irabazi genduan Baque Txapelketea eta aurtun Kadete eta Gazte mailan. Sano pozik gagoz urteetako beha-



Danel Beitia, Iñigo Atutxa (entrenadorea), Beñat Etxeita eta Maren Emaldi makurtuta.

rra ikusten dalako. Txiki-txikiak zira-netik ikusi zan sano pelotari onak zirala eta euren zaletasunagaz eta gurasoen inplikazioagaz, emaitza honeek izan doguz" azaldu deutso BEGITURI Luis Angel Erkiaga Joko Alaiako presidentek.



Arratiako Enpresa Ideien II. Lehiaketa 2018

Sariak

1. saria: 6.000 €
2. saria: 3.000 €

Lehen sektoreari lotutako ideiarik onena:
1.500 € aurreko sarietako baten bat jaso ez badu; kasu horretan, edo lehen sektoreari lotutako proiekturik aurkezten ez bada, zenbateko hori hirugarren sari gisa emango da.

Epea **2018-10-26** (14:00)

INFORMAZIO GEHIAGO

94 631 17 17

www.arratia.eus

Bizkaia

foru erkundeia
diputación foral



AZKOREA

Aitzol Atutxa Euskal Herriko finalerako prest

Erredakzioa

Urri bigarrenaren 28an, Iruñeako Labrit pelotalekuan jokatu da Euskal Herriko Aizkora Txapelketa. Atutxa II. dimoztarra bere bosgarren txapela lortzean saiatuko da.

Sei azkolari neurtuko dira finalerako. Aitzol Atutxaz gainera, Iker Vicente, Mikel Larrañaga, Joseba Otaegi, Eneko Otaño eta Iñaki Azurmendi sailkatu dira finalerako.

Urrezko Aizkolarien Kopa

Atutxak hirugarren egin eban urri bigarrenaren 12an Basaurin jokatutako Urrezko Aizkolarien Kopan. Iker Vicentek eskuratu eban txapela. Bigarrena, Mikel Larrañaga izan zan.

FUTBOLA

Arratia lider

Erredakzioa

Ezin hobeto hasi dau denporaldia Arratiak: andrazkoen Euskal Ligan jokatutako sei partidua irabazi ditu-eta. Hori dala-eta, momentu honetan liderra da sailkapenean. Hurrengo partidua hilaren 21ean jokatuko dau Betiko Neskak taldearen kontra.

Gizezkoen lehenengo taldea, zazpigarren da sailkapenean lau partidua jokatu eta gero. Atzena, irabazi egin eban etxetik kanpo. Hurrengoa, hilaren 20an jokatuko dau Urdulizen kontra.

LemoaHarrobi

Lurraldeko Lehenengo Mailako LemoaHarrobik ez dau hain ondo hasi. Lau partidua jokatu ditu eta puntu bi baino ez ditu lortu. Hamaigarren da sailkapenean. Hilaren 20an, Mungia A izango dau aurkari.

MENDIA

Igorreko mugetatik ibilaldia hilaren 21ean


Erredakzioa

Urri bigarrenaren 21ean, Igorreko mugak ezetuteko marxa arautua- ren hogeta hamaikagarren edizioa izango da. Martxeak ibilbide bi izango ditu aukeran; luzea 27 kilometrokoa eta laburra 17 kilometrokoa.

Ibilbide luzea egiteko urtekerea 08:30ean izango da Igorreko kiroldegitik eta parte hartzeako izena bertan emon behar da urten aurretik, 08:00etatik aurrera. Ibilbide laburra egin gura dabenak, ordu erdi beranduago daukie izen emotea eta urtekerea. Hau da, izena 08:30etik aurrera emon daikie kiroldegian eta 09:00etan ekingo deusie bideari. Izena emoterako orduan 5 euro ondaindu behar dabe nagusiak.

Martxa hau Motxogan Kultur Taldeak Udalaren laguntzeagaz antolatuten dau, Tomas Arandia "Piru"ren omenez. Arandia Igo-

rreko munarriak ezetuteko marxa arautua bultzatu ebenetako bat izan zan. 2002an hil zan eta harezkeroztik bere oroimenean egiten da martxea.



MENDIA

Hiru ibilbide egongo dira Zizetan Mendi Martxan

Erredakzioa

Urri bigarrenaren 21erako, XII. Zizetan Mendi Martxea antolatu dabe Diman. Hiru ibilbide egongo dira aukeran: Handie, Txikie eta Dimesten izenekoak. Edozein ibilbidetako partaideak goizeko 08:00retan urtengo dira frontoi txikitik. Ibilbide luzea aukeratuten dabenak 28 kilometro inguru egingo ditue, eta laburra egiten dabenak 19,5 kilometro. Dimesten izenekoaren ibilbidea barriz, familian egiteko modukoa izango dala dinoe udal iturriak, "baina igazkoa baino apur bat gogorragoa".

Ibilbide luzea aukeratuten dabe-

nak plazatik urten eta Biterino, Bika- rregi, Artaun, Belaxikieta, Urtemon- do, Mugarrekolanda, Baltzola, Indusi eta Bargondiatik pasauko dira. La- burra egiten dabenak barriz, ibilbide bardina egingo dabe Artauneraino eta gero Ugariotzetik plazara joango dira ibilbidea amaituteko.

Izena aurretik emon daiteke Dimako Udalaren webgunean, udaletxean edo kultura.dima@bizkaia.org helbidean 8 euro pagau- ta; edo egunean bertan, martxea hasi aurretik 12 euroko prezioan.

Horniketa puntuak egongo dira bidean eta amaitutakoan indarrak barrizuteko be bai. Partaideai ka- miseta bana emongo jakie.

MENDIA

Arratia, Otxandio eta Zeberioko mendizaleak Igorren batuko dira euren eguna ospatuteko

Erredakzioa

Hemeretzi urte dira Arratia eta inguruko hainbat mendi taldek eguna alkarregaz pasetako Mendizale Eguna ibilbide batez ospatuten dabela. Arantzazu, Areatza, Igorre, Lemoa, Otxandio, Ubide, Zeanuri eta Zeberioko taldeak txandaka antolatuten dabe mendi martxea. Aurt- en, urri bigarrenaren 28an izango da eta Igorreko Motxogan Kultur Taldearen ardura izan da antolaketea. Ibilbideak 15 bat kilometro

izango ditu eta erraza dala di- noe antolatzaileak. Partaideak, Igorreko kiroldegitik urtengo dira 09:00etan, Motxogan igon, eta Suña, Loiate, San Antolingo ermi- tatik eta Urkizutik pasau ondoren Igorrera bueltauko dira. Ibilbidea amaitutakoan indarrak barrizatu- teko kopaua egongo da eskolako aterpean. Izen emotea 5 eurokoa da nagusien kasuan eta debalde umeentzat, eta hilaren 24ra egin daiteke herriko mendi taldeagaz kontaktuan jarrita.



MENDIA

Izena emon daiteke Lemoatx Trail-en parte hartzeako

Erredakzioa

Ganzabal Mendi Taldeak zemen- diaren 18rako antolatu dauan Lemoatx Trail mendi martxa eta mendi lasterketetan parte har- tzeako izena emon daiteke Kirol- probak-en webgunean. Martxa zein lasterketak ibilbide bina dau- kie: bata luzea eta bestea laburra. Luzea 24 kilometrokoa da 1.100 metroko desnibelagaz, eta laburra

16 kilometrokoa 775 metroko desnibelagaz.

08:00retan marxa luzeko par- taideak abiatuko dira, eta ordube- te beranduago marxa laburrekoak ekingo deusie bideari. Hamarret- an lasterketa luzea hasiko da eta 10:30ean laburra egin gura dabe- nen txandea izango da.

Probak amaitutakoan partai- deentzako parrilladea egongo da eta kirol materiala zozketatuko da.

ZURE ZERBITZURA

- ✓ Avia guztira 176 gasolindegil
- ✓ Avia Adenor 35 gasolindegil

GURE BIHOTZA

- ✓ Operazio-Zentroa
- Bilboko Portu Autonomoan

ADENOR Igorre
www.aviaenergias.es

AVIA

ANTZEZLANA

Hika Teatroa konpainiak Txarriboda antzezlana taularatuko dau Igorren**Erredakzioa**

Urri bigarrenaren 26an, iluntzeko 20:00etan, Hika Teatroa konpainiak Agurtzane Intxaurragaren lan hau antzeztuko dau Igorreko Lasarte Aretoan. Intxaurragaren zuzendaritzapean, Sandra Fernandez Agirre, Patxi Gonzalez, Iñigo Aranbarri, Kepa Errasti, Juanjo Otero eta Iñaki Maruri izango dira aktore lanetan. Kanten letrea Onintza Enbeitarena da.

Sinopsia

Mireia eta Imanol ezkongai bikote perfektua dira; zorionaren irudia. Ezkondu egin dira gaur eta Patxi Bilbaok, emaztegiaren aitak eta lperrolako handi-mandiak, antolatuko dau ospakizun gala. Festa itzela. "Gaur txarrien antzera, jan, edan eta jantza egitea gura dot!" esaten

deute konbidatuai. Danak bertan dagozala emoten dauanean, Txusa azalduko da aretoan. Gizon gorputzean bizi dan andrazkoa da Txusa eta Imanolen aitaren azken bikotea izan zan ha hil artean. Mireiak konbidau dau ezkontzara.

Aukera polita iruditu jako Imanolek Txusa hobeto ezetu eta bere aitarena gainditu ahal izateko. Ezuste honek eta beste hainbat sorpresek ospakizuna kolokan jarriko dabe. Ezkontzarena baino txarribodearen antza izango dau.



ONDAREA

Andrak gaitzat hartutako Ondarearen gaineko sei jarduera hileon**Erredakzioa**

Aurtengo Ondarearen Europako Jardunaldiak, *Ondarea, emakumeen emaria* lelopean, andrak Bizkaiaren eraikuntza kulturean daukien zeregina aztertuko dabe. Honen harira, aurreko hamabostaldian, Zeanuriko Laminategietako kobazulora bisitea eta Maurizia Aldeiturriagaren etxeetatik zeharreko ibilaldia, Zeberiotik Arteara, egin ziran. Oingoan, berbalde bik, hiru dokumentalek, artzain bateri bisiteak eta Areatzako Euskal Jaiak aztertuko dabe euskal kulturaren andrak euki daben papela. Dokumentalak, Areatza, Bedia eta Zeanuriko andren bizipenak jasoten dituen bertan egindako filmak dira.

Oingo hamabostaldiko lehenengo jardurea Igorren izango da, hilaren 17an, arrastiko 19:00etan. Andrak Arratiako gizarte tradizionalean eukien papelaren gainean egingo dau berba Angel Larrea historialariak Kultur Etxean.

Egun bi beranduago, 19an, 19:00etan, Areatzan, Iratxe Retolazak andrak eta euskal kulturea izango ditu berabagai Udaletxeko Areto Nagusian. Egun horretan bertan, Zeanuriko, *Akordetan naz, ahiztu ez iteko* dokumentala proiektatuko da, 19:00etan, Kultur Etxean. Dokumentalean, herriko andrak 1936ko gerra ezkerotik

bizi izandakoak kontetan dira.

Hurrengo egunean, hilak 20, Areatzako Euskal Jaia izango da. Aurten hiru berezitasun eukiko ditu jaiak: eguna, jantza batez hasiko da Mari Kruz Gurutzeta plazan; eguerdian bertsolari saioan, andrak euskal kultureari egindako ekarpenak eroango ditue plazara; gainera, Areatzako andren bizipenak buruzko dokumentala ikusteko aukerea egongo da goizean zehar.

Bediako dokumentala eta Puy Arrieta artzainari bisitea

Hurrengo astean beste jarduera bi egongo dira. Hilaren 26an, 18:00etan, *Andrak bizi-erakusle Bedian* dokumentala proiektatuko dabe liburutegian. Eta hurrengo egunean, hilak 27, andra pastoreen lana ezetuteko, Zeanuriko Ipiñaburuko Puy Arrietari bisitea antolatu dau Areatzako Parkeak. Partaideak Parketxean batuko dira goizeko 10:00etan.



MUSIKEA

Arratia kantuz egitasmoa barriro martxan**Kartela.****Erredakzioa**

Arratia kantuz, Arratiako jentea kantu potean biltzeako egitasmoa ipini dabe barriro martxan ikasturteagaz batera. Holan, kantuzaleak, hilean behin batuko dira Arratiako herriren baten alkarre gaz kantetako.

Lehen hitzordua Dimako plazan izango da urri bigarrenaren 26an, iluntzeko 19:30ean, tabernaz taberna kantuan ibilteko. Zemendian, Igorren batuko dira. Hitzordua zemendiaren 23an da, 19:30ean Gau Lora tabernan. Urtailean Areatzan eta holan hilean-hilean Arratiako herriren batean batuko dira eta guztietatik pasauko dira kale eta tabernak animetan.

ERAKUSKETEAK

Drone batez egindako Santiago Yanizen argazkiak ikusgai Artean**Erredakzioa**

Urri bigarrenaren 28ra arte, Santiago Yanizen *Dronegrafiak. Begirada hegalaria* izeneko argazki erakusketea ikusi daiteke Arteako Kultur Etxean.

Yanizek drone batez egindako argazkiak batzean dira erakusketan. Ikuspegi bertikala eta "begirada hegalaria" eskaintzen dabe. Egilearen berbetan, "droneak gaur egunera arte ezinezkoak ziran lurralde bisualak esporetako erreminta sano interesgarria eta balio handikoa ipinten dau XXI. mendeko argazkilariares eskuetan. Paisajearen eta lurraldearen irakurketa deskripti-

boa baino harago lurraren azala esploratu daiteke ikuspegi bisual barri honez gain, ikonoak, geometriak eta iruzkin emozionalak bilatzeko".

Santiago Yaniz

Santi Yaniz (Bilbo, 1957) kazetari eta argazkilaria, hainbat liburu argitaratu ditu. Bere argazkilaritzak gai asko tratatu arren, Euskal Herriko eta mundu osoko paisajeak eta natura erretratetan dabenak dira seguruenik ezagunenak. Hogei liburutik gora kaleratu ditu eta erreportajeak eta dokumentalen gidioak be idazten ditu. Aspaldi honetan, telebistarako drone pilotu lanetan be egiten dau behar.

KONTZERTUA

Eskean Kristök disko barria aurkeztuko dau Kiñu Gaztetxean**Illart Gumuzio**

Eskean Kristö talde arratiarrak, *Beste Belaze Batzuen Gozoan* bere disko barria aurkeztuko dau Igorreko Kiñu Gaztetxean zementiaren 9an, 22:30ean eskainiko dauan kontzertuan. Aurretik beste hiru disko kaleratu ditu Arratiako taldeak, lehenengoa, 2012an *Eskean Kristö* izeneko maketea izan zan; 2014an, *Azote kaldüz* eta 2016an, *Ezkurrik onenak*. Ekitaldirako sarrerak, Igorreko Axular Herriko Tabernan, Gau Lora Akeitegian eta Txaparro Jatetxean, Areatzako Bixer tabernan, Zornotzako Urtza tabernan eta Galdakaoko Elger tabernan dagoz salgai 5 euroko prezioan. Antolakuntzakoak, sarrera kopuru



mugatua dala-eta, sarrerak ahalik eta lasterren erostea gomendatzen dabe.

BERTSOLARITZEA

Iñaki Iturriotz arratiarra Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren bigarren kanporaketan izan da

Erredakzioa

Urri bigarrenaren 14an Santurtzin jokatu zan kanporaketa Malen Amenabarrek irabazi eban eta holan, zemendiaren 25ean Igorren jokatu dan finalurrekorako pasea lortu dau. Iñaki Iturriotzek, Arratiak aurten Bizkaiko Txapelketan daukan ordezkari bakarrak, laugarren egin eban Santurtziko kanporaketan.

Bizkaiko Bertsolari Txapelketako 2018ko udagoineko fasea urri bigarrenaren 6an hasi zan. Gernika-Lumon jokatu zan lehenengo saioa. 38 bertsolari dagoz lehian eta 5 kanporaketa saio jokatu dira. Ondoren, hiru finalurreko: lehenengoa Berrizen zemendiaren 18an; bigarrena Igorren, 25ean eta hirugarrena Lekeition, abenduaren 1ean. Finala Bilbon jokatu da abenduaren 15ean.

Saioaren irabazlea zuzenean sailkatuten da finalurrekoetara, gainontzekoak, puntuazioaren arabera daukie horretarako aukera. Iturriotzek 427,5 puntu lortu ebazan eta momentuz zortzigarren da sailkapen orokorrean.

IKUSKIZUNA

Kantu Kolore taldearen abesti eta koreografia barriak Lasarte Aretoan



Far West.

Erredakzioa

Urri bigarrenaren 20an, arrastiko 18:00etan, Kantu Kolore taldeak *Far West* umeentzako ikuskizuna eskainiko dau Igorreko Lasarte Aretoan.

Betiko moduan, Kantu Kolore taldearen abesti eta koreografia barriak jantzan ipiniko ditue edade guztietako umeak eta helduak. Kontzertua didaktikoa da eta ondo pasetan daben bitartean, umeak, koloreak, gorpuzaren atalak, animaliak eta beste ikasgai asko ikasiko ditue.

DISKOA

Kalean da Larregiren disko barria

Erredakzioa

Larregi Lemoako taldeak bere lehenengo kontzertua emon ebanetik hamar urte beteko dira abenduan eta *Loreak desertuan* disko barria ateraz ospatu gura izan dau urteurrena. Diskoak sei abesti ditu; seigarrena, *Bide bat* taldearen kantu zahar baten bersino akustikoa da. Argitaratu eben lehenengo laneko lehenengo abestia zan hau. Disko barria zarratuten dau oingoan. Eta diskoagaz batera hamarkada bat.

Bide bat kantua berezia da Larregikoentzat. Ez bakarrik make-tako lehen abestia izan zalako, baita Euskadi Gaztean Entzuleen Saria irabazi ebelako kanta horri esker be. Oingoan bersino akustikoa eta lasaiagoa dakarre eta Ane Goienetxe pianojole lemoaztarren kolaborazioa daukie pieza honetan. Sano kantu berezia dala dino Unai Santos Larregikoak.

Beste bost kantu barriak oin arte ibili daben bidetik doazela dino Santosek. "Rocka da, baina beti melodia askogaz. Punka be entzun ahal da, zati askotan. Punk eta rock melodikoa. Eta betiko moduan saiatu gara estribilloak buruan geratzen diran horreetakoak egiten".

Ane Goienetxeren kolaborazioaz gainera, EH Sukarrako Mikel Gorosabel "Norton" musikariarena be daukie Larregikoak disko honetan. Grabazio teknikaria Desore taldeko Endika Parra Igorrekoa izan da.

Albumaren diskoa, *Loreak desertuan*, sare sozialen bitartez bizimo-

du perfektua saltzean deuskuen horreei egiten deutse erreferentzia. Lore batek ezin dau desertuan bizirik iraun eta sare sozialetan guzurrezko bizitza erakusten dabenak be, ezin dabe guzur hori luzaroan mantenidu. Biak daukie iraungitze data denpora laburrean.

Taldekideak

Unai Santosek (gitarra eta abotsa), Iñigo Santosek (bajua eta koroak) eta Gontzal Hocesek (bateria) osotuten dabe taldea. Santos anaiak hasikeratik dagoz baina baterajolea asko aldatu da urte honeetan zehar. Sasoi baten lau taldekide izan baziran be, aitatutako hirukoteak grabau dau diskoa. Taldeari eskaini beharreko "denporea izaten da arazoa. Lanagaitik joan jakun bat, ikasketakaitik beste bat... eta beti ibili gara aldatzen eta aldatzen". Gontzal Hocesek urte hasikeratik jotzen dau taldean eta beragaz grabau dabe diskoa.

Larregikoak Igorreko Udalak musika taldeai debalde ixten deutsezan lokaletan egiten dabez entseguak. Lokal horreetan, zortzi-hamar bat talde dagoz, tartean Eskean Kristö, Zeinke, Desore eta Vinagre de Moderna.

Diskoa aurkezteko kontzertuak

Disko aurkeztuteko hainbat kontzertu joko dabez hurrengo hile bietan. Zemendiaren 2an izango da lehenengoa Gasteizko Ardo Ona Tabernan. Zemendiaren 17an, Bilborock Aretoan joko dabe eta abenduan, diskoa Durangoko Azokako Ahotsenean aurkezteko txandea izango da. Urtea amaitu baino lehen, Lemoako Karabie Gaztetxean aurkeztu gura dabe disko barria, baina oindino eguna ipini barik dago.

"Sano pozik gagoz diskoagaz eta saiatuko gara aurkezpen on bat egiten. Ea jenteari gustetan jakon!" dino Unai Santosek.



DUNBA

2018-2019 ikasturteko proiektuak Zulaibarren

Aurrerapen teknologikoa aldaketa garrantzitsuen erritmoa ipinten dabil, bai maila sozialean baita ekonomikoan be.

Zulaibar Lanbide Ikastegia

Arratiako Zulaibar Lanbide Ikastegiarekin egin beharretako bat teknologia barri hori sortzean danetik eza-gutza jasotzea da eta horretarako Tknikan (Lanbide Heziketari aplikatuko ikerketa eta barrikuntzako EAEko zentroa) enpresakaz eta Lanbide Heziketako beste zentroakaz batera proiektuak aurkeztu dira.

Ikasturte honetarako proiektu

bi garatzeko aukera daukagu: Beroko trokelen hozketa sistemearen optimizazioa eta Eransketa bidezko fabrikazioaren erabilera automozinozko piezen diseinuan eta optimizazioan.

Beroko trokelen hozketa sistemearen optimizazioa

Zulaibarreko Errutina Sortzaileak proiektuaren banean behaketea egin ondoren eransketa bidezko

fabrikazioa etenbarik garatuten dagoan teknologia dala ikusi dogu. Balio erantsi handiko teknologia da industria aeroespazialean, automobilgintzan eta osasun industrian.

Batz S. Koop. trokeltgile enprezagaz berba egin ondoren alkarlanean proiektu bat garatzeko aukera ikusi genduan, eransketa bidezko fabrikazioaren aplikazioak aztertzeko helburuagaz. Batz-en oin eta etorkizunari begira garrantzi berezia daukan prozesuetako bat beroko estanzazioa da. Materialak izan daben garaperaren eraginaz, industria aeroespazialean eta automobilgintzan erresistentzia handiko materialak erabiltzen dira: UHSS altzairuak, Inconel... Material honeei formak emoteko beroko estanzazioa erabiltzen da.

Beroko estanzazioan hozketa prozesuak garrantzi handia hartzean dau, materialaren propiedadeak aldatu daitezkealako. Gaur egun hozketa trokelen takoetan egiten diran zulaketa zuzenez eragiten dira. Proiektuaren helburua

hozketa sistemearen optimizazioa da. Horretarako eransketa bidezko fabrikazioak ahalbidetzen dituan geometria/egitura desbardinak sortuko dira, piezaren hozketa homogenea lortzeko eta hozketan sortu daitezkean bero geldikin guneak ezabatzeko.

Hozketa sistemea diseinatu ahal izateko alderantzizko ingenieritza erabiliz, trokeltako takoen CAD modeloa lortuko da ·D Eskaner bat erabiliz. CAE sistemearen bidez hozte prozesuaren simulazioa eta hozketa bideen diseinuaren optimizazioa. FDM teknologiaren bidez PLA-zko prototipoaren fabrikazioa. SLM teknologiaren bidez prototipo metalikoaren fabrikazioa.

Eransketa bidezko fabrikazioaren erabilera automozinozko piezen diseinuan eta optimizazioan

Bigarren proiektuari jagokonez eransketa bidezko fabrikazioa erabiliz kotxeen pieza batzuk fa-



brikauko doguz. Jarraituko dogun prozesua antzekoa izango da: alderantzizko ingenieritza erabiliz kotxeen matxuratutako pieza 3D eskanerragaz eskaneau, CAD modeloa lortu, hobekuntzak proposatu, plastikozko inpresoran prototipoa egin, ADDIMEN enpresan inpresora metalikoan fabrikauko da eta amaitzeko PTA GROUP enpresan saiakuntza ez birrintzaileak erabiliz piezea ondo dagoan aztertuko da. Proiektu honetan Somorrosto, San Viator eta Mondragon unibersidadeagaz batera egingo dogu lan.

AGENDEA

URRI BIGARRENAK 17
AREATZA

18:00etan, Areatza Eraiki proiektuaren 1. saioa. Ikerketaren kontrastea eta ekarpena udaletxeko arkupeetan.

ARRATIA

Hilaren 26ra arte, Arratiako Enpresa-Ideien Bigarren Lehiaketarako proiektuak aurkeztu daitezke AUMen.

BEDIA

Hilaren 19ra arte, Euskararen aldeko leloarentzako Irudien Lehiaketan irudiak aurkezteko epea. Liburutegian edo liburutegia@bedia.biz helbidean. Leloa: "Gaur bihar eta etzi euskarari eutsi". 16:30etik 19:30era Liburutegian.

16:30etik 19:30era, hilaren 22ra arte, San Martin eguneko babajenerako izena emoteko epea. Liburutegian.

16:30etik 19:30era, hilaren 26ra arte, Bediako Euskaraldian parte hartzeako izena emoteko epea. Liburutegian.

DIMA

18:00etan, Arratiako Andren Jabekuntza Eskolako *Goxatuko naiz* ikastaroa hasiko da Elexalde lokalean.

IGORRE

19:00etan, Angel Larrearen berbaldia *Andrak Arratiako gizarte tradizionalen*. Kultur Etxean.

LEMOA

Hilaren 31ra arte, Lemoako VII. Argazki Lehiaketan argazkiak aurkezteko epea.

16:45ean, sukaldaritza familian, ludotekan.

URRI BIGARRENAK 18
IGORRE

18:30ean, berbaldia, *Badira zakila duten neska eta bulba duten mutilak* Chrysalis alkarteko Bea Sever-en eskutik. Kultur Etxean.

LEMOA

18:30ean, HAPO. *Lemoa herri anitza*. Elizondoko Kultur Gunean.

URRI BIGARRENAK 19
AREATZA

19:00etan, Iratxe Retolazaren berbaldia

Emakumeak euskal kulturaren: ekarpenak eta erronkak. Udaletxeko Areto Nagusian.

DIMA

18:30ean, Udagoieneko Eskupelota Txapelketaren finalurrekoa.

IGORRE

18:30ean, Bizkaiko Gazte Euskaltzaleen Topaketen aurkezpena Kultur Etxean.

19:00etan, Ines Medinaren ikasleen erakusketaren inaugurazioa. Borja Estankonaren kantaldia eta kopaua. Erakusketea zementziaren 30era arte egongo da.

ZEANURI

18:30ean, Mazala Andra Elkarteak eta Eguzkiolak antolatuta, Emakumeen Mundu Martxarako argazkia atera frontoian.

Pako Aristiren berbaldia Diman
urri bigarrenaren 19an

Pako Aristi, kazetari eta idazleak *Euskararen isobarak* bere liburua-zen izenburu bereko berbaldia egingo dau hilaren 19an, arrastiko 19:00etan, Dimako Abaroa Aretoan.

Berbaldian, liburuan legez, euskerearen inguruko diskursua kutsatzen dabezan guzurrak azalduko ditu: euskera politizauta dagoala, ez dala modernoa, subentzionaute dagoala eta ez dala erakargarria, beste batzuen artean. Liburuan, euskerearen mila urteko historia kontetan dau, Nafarroako Erresumaren sasoiak hasi eta gaurdaino, euskereak sufridu dauan gainbehera planifikaua deskribiduz.

19:00etan, *Akordetan naz, ahiztu ez iteko* dokumentala Kultur Etxean. Mazala Andra Elkarteak antolatuta.

URRI BIGARRENAK 20
AREATZA

Euskal Jaia. 11:30ean, jaiaren hasikerea, herri jantza Gurutzeta plazan; goizean zehar, *Areatzako emakumeen memoria eta bizi esperientziak* dokumentala ludotekan; 12:00etan, *Ez da kasualitatea* bertso saio musikatu, bertolariak: Uxue Alberdi, Onintza Enbeita, Miren Amuriza eta Oihana Iguaran, plazan; 15:00etan, herri bazkaria frontoian; 18:30ean, EinGo Kantan eta Dantzan taldeagaz poteoa; 20:00etan, Patxi eta Konpania taldeagaz erromeria plazan; ondoren, Larrain jantzea eta berakatz-zopea. Egunean zehar, Bizkaiko Gaiteroak.

BEDIA

10:00etan, familiako utekerea Bediatik: zuzgatzak ezetuten plazan.

Bediako Eleizalde Jubiladuen Elkarteko bazkaria Batzokian.

IGORRE

18:00etan, Kantu Kolore taldearen *Far West* umeentzako ikuskizuna Lasarte Aretoan.

22:00etan, zinea *Yucatan* Lasarte Aretoan.

URRI BIGARRENAK 21

DIMA

08:00etan, Zizetan Mendi Martxa frontoi txikitik urtenda.

IGORRE

XXXI. Mugari Bira. 08:00etan, ibilbide

luzerako (27 km.) izen emotea; 08:30ean, ibilbide luzearen urtekerea eta ibilbide laburrerako (17 km.) izen emotea; 09:00etan, ibilbide laburraren urtekerea. Kiroldegian.

17:00etan, zinea *Los increíbles 2*; 19:30ean, *Yucatan* Lasarte Aretoan.

URRI BIGARRENAK 22

IGORRE

10:00etatik 15:00etara, orientazio sesinoa Beharbidetaz. Kultur Etxean.

URRI BIGARRENAK 24

LEMOA

17:30ean, *Liburuz liburu* ipuin kontalaria lau urte baino gehiagoko umeentzako liburutegian.

19:00etan, Jai Batzordearen batzarra jaietako balorazioa egiteko udaletxean.

ZEANURI

09:30ean, Gorbeia Jubiladu eta Pensionisten alkarteak eta Zeanuriko eskoleak antolatuta, mendi ibilaldia, gaztaina eguna, Albakoako eskoletan.

URRI BIGARRENAK 26

ARTEA

20:30ean, The Willow taldearen kontzertua Kultur Etxean.

BEDIA

18:00etan, Ondarearen Europako Jardunaldia, *Andrak bizi-erakusle Bedian* dokumentala liburutegian.

DIMA

18:30ean, Udagoieneko Eskupelota Txapelketaren finala.

19:30ean, Arratia kantuz plazan.

IGORRE

18:00etan, 3-6 urte bitartekoentzako ipuin kontaketea; 19:00etan, 7 urtetik gorakoentzatz. Pello Añorga ipuin kontalariaren eskutik.

20:00etan, Hika Teatroa konpainiaren *Txarriboda* antzezlan Lasarte Aretoan.

ZEANURI

15:00etan, Jubiladu eta Pensionisten alkarteak eta Zeanuriko eskoleak antolatuta, gaztainak erre eta jan Albakoako eskoletan.

URRI BIGARRENAK 27
AREATZA

10:00etan, Ipiñaburuko Puy Arrieta

pastoreari bisitea. Areatzako Parketxean. Izena emon 94 673 92 79 telefonoan edo gorbeia.park.naturala@bizkaia.eus helbide elektronikoa.

AREATZA/ZEANURI

13:00etan, Arratia Raid Saldropon.

BEDIA

09:00etan, familiako urtekerea Albaolara (Itsas Kultur Faktoria).

IGORRE

22:00etan, zinea *Las distancias* Lasarte Aretoan.

LEMOA

Jubiladuen eguna. 12:00etan, mezea; 14:00etan, bazkaria kiroldegian.

Harriketarrak Gazte Asanbladearen 19. urteurren jai. 13:00etan, kuadrillen jolas poteoa; 14:30ean, bazkaria; 17:00etan, goitibehera jeitsiera; 19:30ean, poteo musikatu; 22:30ean, kontzertuak, Sua taldea eta DJ-a Karabie Gaztetxean.

URRI BIGARRENAK 28
AREATZA/ZEANURI

10:00etan, orientazio proba Saldropon.

ARTEA

Santiago Yaniz-en *Dronografiak*. *Begirada hegalaria* erakusketaren atzen eguna. Arteko Kultur Etxeko Areto Nagusian. Bizkaikoa erakundearen eskutik.

14:30ean, Emakumeen Mundu Martxa dala-eta, andren bazkaria plazan.

DIMA

10:30ean, Emakumeen Mundu Martxari harreria eta Baltzola kobara ibilaldia.

IGORRE

09:00etan, XIX. Arratia-Otxandio-Zeberio Mendizale Eguna. Kiroldegian.

17:00etan, zinea *Los futbolisimos*; 19:30ean, *Las distancias* Lasarte Aretoan.

URRI BIGARRENAK 30
IGORRE

18:30ean, Euskal Mendizale Federazioak eta Udak antolatutako prestakuntza saioa Kultur Etxean.

URRI BIGARRENAK 31
LEMOA

16:45ean, sukaldaritza familian, ludotekan.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU

BASERRIA SALGAI

Baseri barriztua saltzean da Areatzan. 210 m², 3 solairutan bananduak. 4 logela, komun bi. Terrenoa etxe inguruan. Herritik oso hur. 685 717 504 (Garazi).

AUTOKARABANEA SALGAI

Mercedes Viano Marco Polo salgai. Westfalia autokarabanea. 2.2 CDI 150 zaldi, automatikoa, 2004. urtekoa 215.000 kilometro. Granatea. Interesdunak 665 706 388 telefonora deitu.

DANERIK

TRIKITIXEA EROSTEN DOT

Bigarren eskuko trikitixa erosten dot, Sol tonon balezgo hobe. Interesdunak 657 707 725 telefonora deitu.

GELA ALOKAIRUAN LONDONEN

Autobusez erdigunetik 30 minututara dagoan gela alokatzen da Londonen garagarriaren 14tik urri lehenengoaren 29ra. Interesdunak idatzi ugerka2@hotmail.com helbide elektronikora.

ETXE BILA

Arratiatik baseri-etxe bila gabizan 4 andra gara (etxerako modukoak). Alkilerrean. Interesdunak 685 707 176 zenbakira deitu.

ALOKAIRURAKO LAGUN BILA

Dimako Egiraun auzoan leku eder baten baseri dotore eta polit baten alokairua konpartidutako personeren bila gabiz. 450 euro. Ortu, tenis zelaia eta bainua hartzeako aukerea. Interesdunak 607 482 499 telefonora deitu.

ETXE BILA

Areatzan pisu/etxe bila gabizlan familia gara. Alokatzeko zein erosteko prest. Herrigunetik hur egotea gustauko litxakigu. Interesdunak 653 745 838 telefonora deitu.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Hika Teatroaren *Txarriboda* antzezlanerako.

Espe Kaltzada (Dima)
Amaia Astondoa (Areatza)



2 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Kantu Kolorearen *Far West* ikuskizunerako.

Juan Antonio Menika (Arantzazu)
Mikel Iriondo (Dima)



3 Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 16 urte eta ehundaka lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU

	1	2	3	4	5	6	7
1							
2							
3							
4							
5							
6							
7							
8							
9							

EZKERRETIK ESKOIERA

- 1.- Azken letra. Sufridu.
- 2.- Indioaren sinbola. Kodaina.
- 3.- (Atz.) Birritan, bozinaren zaratearen onomatopeia. Adorazino. 4.- Uretan bor-bor egin.
- 5.- Nitrogenoa. Birritan, eperraren kantua onomatopeia. Boroa.
- 6.- Iskanbila. 7.- Haga, habe. Birritan, distiraren onomatopeia.
- 8.- Ogiaren osagai bat. Kriptikoaren sinbola. 9.- Aholkua. Bat erromatar.

GOITIK BEHERA

- 1.- Lohi. Aihen, laira. 2.- Galdetzaila. Zirt edo... 3.- Konsonantea. Garraztu.
- 4.- Arsenikoa. Birritan, barre-argarearen onomatopeia. Zintzo.
- 5.- Jarraian. Bokala. 6.- Bigun. Nondik atzizkia. 7.- Narria, narra. Albiste.

I	V	N	T	I	6	I	I	O	N	Z	W	R	N	D	V
R	K	O	T	R	V	8	V	T	O	A	Z	R	O	D	I
R	I	N	Z	V	L	Z	R	N	I	V	R	A	Z	R	N
V	T	V	R	Z	9	M	D	I	I	O	A	Z	R	N	
B	D	K	V	N	S	N	I	Z	H	O	Z	I	R	N	
N	I	R	K	I	5	V	A	N	O	S	A	X	A	X	
K	O	M	O	K	3	S	X	O	V	A	Z	R	N	D	
G	U	S	E	N	Z	O	O	V	I	V	V	V	V	V	
N	V	A	S	V	I	Z	S	I	V	V	V	V	V	V	
Z	3	4	5	6	7	V	W	V	V	V	V	V	V	V	

Topau zazpi mendi historikoren izenak.

K	A	R	B	I	A	K	U	M	A
I	M	A	K	A	L	U	T	E	R
S	A	M	I	K	O	R	R	U	A
I	N	D	I	G	A	O	Z	N	C
M	A	S	A	L	A	R	N	K	O
A	S	U	T	X	I	A	R	U	N
N	L	E	S	A	P	J	O	R	C
K	U	K	E	U	A	N	L	P	A
A	D	O	R	A	M	A	P	O	G
R	I	N	E	Z	O	M	E	T	U
M	A	Z	V	O	L	I	G	E	A
U	R	R	E	B	A	L	I	N	U
T	E	I	D	E	G	I	S	A	R
I	G	O	R	B	E	K	O	L	A
A	G	U	R	M	E	N	D	I	L

**AKIKI
MIKO**

Iman Olatu



umaan moda
seim
0-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa. 94 631 92 96 • seimoda@hotmail.com

Orre
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA
L. Agirre, 2.
48140 Igorre (Bizkaia) Tfnoa.: 94 673 64 25

AKEITEGIA
GAY & LORA
IGORRE

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
KOSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
Tf. 94 631 92 00

Beer & Edariak s.l.
HEINEKEN SOLARES
Polig. Mendizola, s/n 48530 LEZMOA, Bizkaia
Tel: 609 482 830 • 609 206 717

ZUZENBIDE
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3. behea - Igorre (Bizkaia)

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARDO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
94-673-70-87
609-79-49-54

AKESOLO, S.A.
GARRAIODAK, NEUMATIKODAK ETA ZERBITZUAK
Gara, 29 Telefonoa: 94 673 60 14 IGORRE-BIZKAIA

Pinturas Aratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

NAIARA Hertz Klinika
Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorre
94 631 52 26

GABRIEL GARCIA

"Gatxa da garagardao industrialala ekoizten daben multinazionalen kontra joatea"

Gabriel Garcia, "Bele", garagardaogilea da. Kataluniatik etorrita, Mandoia mendiko altzoan bizi da. Oin, bere garagardaoa, Belebeer izenekoa, Arratiako plazara ekarri dau. Igorren lantegitxo bat zabaldu barri dau hain gogoko daukan edabe hori egiteko.



Alvaro Rabelli

Garagardaogilea zaitugu. Noz hasi zinan garagardaoaren munduan?

Ni Cornellakoa naz, Kataluniakoa. 2005ean Zeberiora etorri ginan, hemengo mendiak ekarrita edo. Baserrian beti egin izan dogu garagardaoa, guretzat, etxerako. Baina, egia esan, Euskal Herrira etorri baino askoz lehenago hasi nintzan garagardaoaren munduan. Cornellan bertan garagardaoen klub baten parte hartzean neban, bertan zaletu nintzan. Eta hasi, bada, asko lez, neskalagunak garagardaoa egiteko kit horreetako bat opari egin eustan, eta holan hasi nintzan etxean bertan garagardaoa egiten.

Eta Belebeer izeneko hau zelan sortu zan?

Proba asko egin ondoren, egia esan. Batzuetan egundoko astakeriak egin izan doguz, sano txarto urten izan deuskue, asma-tu arte. Baina, behin errezetea zein izango zan asmatuta, horrerri eutsi deusagu. 2008rako baegoan prest. Guri gustetan jakun

garagardaoa da, mota bakarrekoa. Ez dogu garagardao mota gehiagorik egin gura, momentuz behintzat ez.

Zelango berezitasuna dauka garagardao honek?

Belebeer Belgium Pale Ale klaseko garagardaoa da; hau da, Belgikako garagardaoen estilokoa, gorrixkea, leuna, erraz edatekoa eta ez dauka oso graduazino altua. Maltea bertatik ekarten dogu, Belgikatik, hangoa askoz hobe dalakoan. Hemen be lortu leiteke malta ona, Gasteizen esaterako. Baina, guk Belgikakoa gurago dogu, bertan munduko garagardao onenetariko batzuk egiten diralako. Lupulu be sano garrantzitsua da, garagardaoari usaina, saborea eta mingots puntua emoten deusalako. Guk lupulu mota bi erabilten doguz, Estatu Batuetan eta Zelanda Barrian jatorria daukienak. Tresneria, ostera, Kataluniatik ekarri dogu, bertan garagardao artisauen munduan hemen baino garatua-go dagoalako.

Oin, Igorren zagoz, ezta?

Bai, hasikeran etxerako zana,

oin kanpora saltzean hasi gara, Belebeer etiketapean. Denpora gitxi daroagu; izan be, aurton hasi gara. Badakigu ez garala Arratiako lehenengo garagardao artisaua. Jente askok Zeanurikoa izan zan Bertoko markeaz berba egin deusku. Guk ez dogu ha ezetu. Oin Igorren arraindegia izandako lokal txiki bat hartu dogu, Sabino Arana kalean, DIA dendearen atzean. Bertan egiten dogu, eta jentea hara erosten joan leiteke. Edozelan be, gure asmoa inguruko azoka eta tabernetan saltzea da. Oingo, kontua astiro doa.

Hemen badogu garagardao kulturarik?

Berbarako, Kataluniagaz alderatu ezker, ez. Han etxeko garagardao edo garagardao artisauen boom hori sano aspaldikoa da. Hemen, oin hasi da ailegetan. Dana dala, gauza bat argitu behar da, eta da izena. Ez da oso zuzena gurea artisau garagardaoa dala esatea, halangorik ez dagoalako, etiketa hori askotan agertu arren. Gurea, berez, etxeko garagardaoa, edo ekoizpen txikiko

garagardaoa da, kalidadezkoa inondik be. Kalidadea dalako garagardao industrialetatik bereizten gaituana. Hemen pasaten da batzuek dinoela garagardao mota hau ez jakielako gustetan; normala da, urteak eta urteak daroaguz garagardao industrial txarra edaten, askok eta askok ahosabaia horretara eginda daukie. Eta gero kostua dago, askok uste dabelako garagardao hau askoz garestiagoa dala. Gu, ostera, oso prezio egokian saltzean ahalegintzen gara. Edozelan be, gatxa da garagardao industrialala ekoizten daben multinazionalen kontra joatea. Zer topetan dozu hemengo tabernetan? Bitxia da Herriko Tabernetan eta alkarteetan multinazionalen garagardao txarra eukitea. Oindino ez dogu garagardao ona garagardao txarretik bereizten.

Eta aurrerantzean?

Bada, momentuz daukagunari eutsi. Gure gustuko garagardaoa egin, produktu ona euki eta prezio nahiko justuan saldu. Eta batez be, gozatu, etxera ailegau eta garagardao on bat edan.

"Badakigu ez garala

Arratiako lehenengo garagardao artisaua.

Jente askok Zeanurikoa

izan zan Bertoko

markeaz berba egin

deusku"